

hh
hik hasi

Etapen arteko lotura
Hezkuntza ez-formala, elkarbizitza eta
hizkuntza erdigunera
Joxe Mari Auzmendiren biografia,
eredu eta akuilu
Hezkuntzaren museoa
Asier Etxeberria Etxeberria



“Sustapena ongi dago, baina araugintza ere behar da hizkuntza politiketan”

PAUL BILBAO
IDURRE ESKISABEL



JOLASTU URTAROZ URTARO ABENTURAZ JOSITAKO ISTORIOEKIN

Anita Bijsterbosch



2023ko udaberrian



AURKIBIDEA

GAIA / 8

ETAPEN ARTEKO LOTURA

HEIZEko aurtengo jardunaldietan etapen arteko lotura izan dute aztergai, bereziki Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako trantsizioa. Ikasleentzat aldaketa handia eragiten duen trantsizioa izanik, arretaz zaindu beharreko prozesua dela ikusi da, eta jatorrizko eta helmugako ikastetxeen artean koordinazioa funtsezkoa dela.

ELKARRIZKETA / 14

PAUL BILBAO · IDURRE ESKISABEL

Idurre Eskisabel izango da Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusi berria hemendik aurrera, Paul Bilbaoren lekukoa hartuta. Biak elkartu ditu **Hik Hasik** hizkuntza eskubideen eta hizkuntza politiken egoeraz mintzatzeko. Diagnostikoa eginda, hemendik aurrera zein norabide eta erabaki lehenetsi behar diren azaldu dute.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguilera eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu, Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Kontxi Aizarna, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi

Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L

Hezkuntza Sailak onetsia (2022-12-02).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiek.

5 EDITORIALA

Lokatzetatik egindako lanaren balioa

8 GAI NAGUSIA

Etapen arteko lotura

14 ELKARRIZKETA

PAUL BILBAO

IDURRE ESKISABEL

“Adostasun sozial berrietan azeleragailua zapaldu behar da”

20 ESPERIENTZIAK

Hezkuntza ez-formala, elkarbizitza eta hizkuntza erdigunera

24 EKARPENAK

Joxe Mari Auzmendiren biografia, eredu eta akuilu

28 EKARPENAK

Nor naiz ni?

32 EKARPENAK

Hezkuntza sistemaren gobernantza: udalen eta komunitatearen papera

34 AHALDUNTZE ESKOLA
Finantza etikoak

36 GALDEIDAZU

Nola egin ikastetxeko proiektu digitala?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

Hezkuntzaren museoa

42 ATZEKO ATETIK

Asier Etxeberria Etxeberria

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HEZKUNTZA POLITIKA SAILA

Hezkuntza Sailak eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



zerbitzua eta lana cuskaraz



BRRROOOOMMM!!!



Lokatzetatik egindako lanaren balioa

editoriala

JOXE MARI AUZMENDIREN BALIOAK ARGITAN JARTZEN DITUEN LIBURUA KALERATU DU HIK HASIK. HEZKUNTZAREN UNE HISTORIKO HONETAN EREDU ETA AKUILU BEHAR LUKE HAREN IZPIRITU BATERATZAILEAK.



Euskal edagogoia lokatzetan: Joxe Mari Auzmendi, *Hik Hasiren arima, A-tik Z-ra*. Izenburu horrekin argitaratu du *Hik Hasik* liburu berria, edo are gehiago, ekarpen berria. Hik Hasiren aldizkariak, formazioek eta materialek helburu hori izan baitute hasieratik: euskal hezkuntzari ekarpena egitea. Ildo horri jarraiki, biografia bat baino gehiago den liburu honek ere ekarpen sutila bezain sakona egiten duela esan daiteke.

Hik Hasiren arima izan zen Joxe Mari Auzmendi, eta haren bizitzako hainbat pasarte argitara emateaz gain, bizitzan zutabe eta helduleku izan zituen balioak aletzen dira liburuan. *A-tik Z-ra*, hitzez hitz, koherentziaz eta zintzoki praktikan jarri zituen balioak dira, hezkuntzako, herrigintzako eta kulturgintzako bere jardunean. Ez zuen liburu teorikorik idatzi; Joxe Mari Auzmendik egin egin zuen, jardun, aritu, lokatzetan murgildu. Eta horrelaxe irabazi zuen pedagogoa titulua, berak inoiz esaten ez bazuen ere, askok jarritakoa edo aitortutakoa.

Joxe Mari Auzmendiaren hitzak esan berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal. Merezi du haren balioak gogoratzeak eta gaurkotasuna emateak. Merezi du eta behar da. Behar da orratza eskuetan zuen jostunaren irudia, izpiritu bateratzailearekin aritzen zen eragilearen irudia. Ikastetxeetan, bileretan, kalean eta hezkuntza eragileen artean saregile lanak egiten zituela argi frogatuta geratu da liburuko orrialdeetan hainbat egilek kontatu dutenarekin.

Horregatik, eredu eta akuilu izan daiteke une historiko honetan ere, zergatik ez. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Legearen prozesua nola doan ikusita, liburuaren irakurraldia gomendagarria izan daiteke. Bakoitzak bere ezaugarriak defendatzea zilegi dela onartuta, horren gainetik egongo den begirada bat behar da zerbait eraikiko bada. Herri honi eta erdigunean kokatzen diren ikasleei eta pertsonei zor zaielako. Legeari egindako ekarpenen osagarri izan daiteke liburuak, ikuspegi bateratzailearen aldarria daramalako Joxe Mariaren izpirituak.

“Erakunde autonomikoko agintariak bi printzipio nagusi ezarri dituzte: euskara eta gaztelera, biak gureak. Eta euskara eztabaida politikotik kanpo”

Pako Sudupe

HILEKO IRUDIA





AZTERKETAK EUSKARAZ EGITEKO ALDARRIA BORDELEN

"Azterketak euskaraz nahi ditugu. Eta ez hurrengo urtean; orain nahi ditugu!" ohikatu zuten azaroaren 14an Bordelen (Okzitania) Seaskako ikasleek, irakasleek eta gurasoek. Hogei autobus joan ziren Bordelera eta errektoretzaren bulegoetatik abiatu eta giza eskubideen plazaraino joan ziren, Anne Bisagni-Faure errektoreari eta Pap Ndiaye ministroari errateko hizkuntza eskubideak giza eskubideak direla.

Irailen bildu diren Parisen EEPko ordezkariak eta Ipar Euskal Herriko parlamentariak Frantziako Hezkuntza Ministerioarekin, eta geroztik erantzunaren zain daude.

2017ra arte brebeta osoki euskaraz egiten zuten Seaskako ikasleek eta baxoan Historia-Geografia eta Matematika euskaraz egiteko aukera zuten. Gaur egun, brebetako zientzietako proba frantsesez egitera behartuak dira, eta baxoko azterketetan ez dago deus euskaraz.

**Argazkia: Baionako Bernat
Etxepare lizeoa**
Bordelen, 2022ko azaroaren 14an



Hezkuntzaren egunerokoan hamaika erronka sortzen dira eta horiek detektatzen iaioa da HEIZE Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkartearen Federazioa. Behin antzemanda, erronkei aurre egiteko moduak bilatzea izaten da desafioa eta horretarako baliatzen dituzte urtero antolatzen dituzten jardunaldiak. Aurtengoan ikasleen etapen arteko loturaren premian jarri dute arreta. Ikasturtez ikasturte maila bat gora egiten dute ikasleek, eta ibilbide horretan zikloz eta etapaz ere aldatzen dira. Ikasleengan eragin nabarmena duten trantsizioak dira, arreta jarri beharrekoak. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzarako aldaketa da ikasleengan ezinegon handiena sortzen duena, eskola publikoetan antolaketa eta lan egiteko modu oso desberdina duten ikastetxeetara aldatzea dakarrelako. Gaiaren gaineko lehen hurbilpena eginez, trantsizioak modu egokian nola egin daitezkeen irudikatze ariketa egin zuten.

GAIA: ETAPEN ARTEKO LOTURA

LHtik DBHrako trantsizioa koordinatzen

Etapen arteko lotura izan dute gaitzat HEIZEko 10. jardunaldiek, ongi detektatuta dagoelako ikaskuntza etapen artean lotura gutxi eta koordina-zio gabezia handia dagoela eskola publikoetan, eta horrek, azkenean, ikasleengan duela eragina, eta ez bereziki ona edo positiboa. Egoera hori hobetzen has-teko asmoz elkartu ziren Bilboko Hezkuntza fakultatean hainbat zuzendari eta irakasle, eta beste askok ikastete-txetik bertatik egin zioten jarraipena jardunaldiari.

Eguneko jardunaren hasieran argi adierazi zuen Lucia Torrealday Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak gai horretaz ezer gutxi dagoela idatzia. Euskal Eskola Publikoaren legean aipamen bat baino ez dela egiten azaldu zuen, eta haren ondotik etorri diren curriculum dekretuetan eta arauetan ez dela espreski ezer idatzi. “Bai, oster, orain argitaratuko den edo tramitean dagoen oinarrizko hezkuntzaren curriculum berrian”, gaineratu zuen. “20. artikulua txertatu da trantsizioari nolabaiteko aipamen berezia ginez. Interesgarria da

bertan jasotzen dena, koordinaziorako eta informazioa esku aldatzeko mekanismoak bermatu behar direla dioelako”. Artikuluaren 2. puntuan jatorrizko eta helmugako profesionalen artean lankidetzak ezartzeko mekanis-moak ezinbestekoak direla esaten da, batez ere Hezkun-tza Laguntza Premia Bereziak dituzten ikasleen kasuan. “3. puntuan beste kontu bat ere aipatzen da: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean matrikula egin ondoren, ikastetxeek Lehen Hezkuntzako historia akademiko-ra eta etapa amaierako banakako txostenetara jo ahal izango dutela zuzenean. Atxikitako ikastetxeen kasuan —ibilbide bereko ikastetxeak—, gainera, ikasleen LHko azken tutorearen eta DBHko tutorearen edo ordezkariaren artean elkarrizketak egin beharko direla dio, ikaslearen ikaskuntza ibilbideari buruzko informazioa osatzeko. Eta berriro aipatzen da Hezkuntza Laguntza Premia Bereziak dituzten ikasleen kasua, Orientazio taldeko kideak ere batzar horietan egon behar dutela esanez. “Azken finean, artikulua bat baino ez da; orain berau garatzea eta martxan jartzea dagokigu”, gaineratu zuen Torrealdayk.

GAIA:

ETAPEN ARTEKO LOTURA

LH-TIK DBH-RAKO TRANTSIZIOA KOORDINATZEN

6-16 urte bitarteko derrigorrezko hezkuntza eskaintza osoa egiten duten ikastetxeek hezkuntza proiektu bakarra izan ohi dute, baina Euskal Herriko eskola publikoetan bestelakoa da egoera; ohikoena Lehen Hezkuntza amaitu ondoren Bigarren Hezkuntzako beste ikastetxe edo institutu batera joatea izaten da. Orokorrean kultura eta gauzak egiteko bestelako erak izaten dituzte, bai curriculumari begira, bai antolaketa eta funtzionamendu egiturei begira. Horregatik, zikloen eta etapen arteko aldaketek eragina izaten dute ikasleengan, eta bereziki LHtik DBHrako etapa aldaketak.

Trantsizio delikatua

Nerea Permach EHUKo Bilboko Hezkuntza fakultateko irakaslearen ustez etapa aldaketa hori da ikasleentzat delikatuena, eta halaxe adierazi zuen jardunaldian.

“Garai horretan oso prozesu konplexua bizitzen dute ikasleek, alde batetik errealitate berri batera egokitu behar dutelako, eta bestetik euren garapen pertsonalean eta harremanetan aldaketa ugari bizitzen dituztelako. Nerabezaroen emozionalki gorabehera handiak daude eta hori dena ikastetxe berri batean, lagun berriekin eta irakasle mordo batekin bizi behar dute. Ikasleek egokitzapen psikologiko, sozial eta akademiko konplexuak bizitzen dituzte. Trantsizio bikoitza dela esan daiteke:

batetik baikortasunez, erronka moduan; baina bestetik antsietatez, beldurrez eta estres handiarekin bizi daitekeen prozesua da”. Horregatik uste du ikastetxeetatik egokitzen laguntzeko ahalegin berezia egin behar dela.

Torrealdayren iritziz garbi dago ibilbide pedagogiko komunak sortzeko beharra dagoela: “Hezkuntza proiektuen arteko koherentzia bermatu behar da, eta baita zuzendaritza proiektuen artekoa ere. Etapen arteko loturak hezkuntza proiektuetan eta zuzendaritza proiektuetan isla eduki behar du, esplizituki adierazi behar da, bestela ez baita ikusten”. Trantsizio protokoloak edo prozedurak ezartzearen beharra ukazina dela gehitu zuen, zeinetan irakasleen eta orientatzaileen arteko batzarrez gain, beste hainbat alderdi landu behar diren, besteak beste: harrera planak, familien inplikazioa, curriculumak garatzeko moduak —batez ere metodologia eta ebaluazioa—, aniztasunaren erantzuna, taldekako eta banakako tutoretzak, ikasleen arlo emozionala, akademikoa eta sozialaren ezagutza —batez ere Hezkuntza Laguntza Premia Bereziak dituzten ikasleen kasuan— eta abar.

Beraz, Torrealdayk azpimarratu zuen moduan, “etapen arteko trantsizio egokia egitea ikaslearen eskubidea da eta urrats sendoak eman behar ditugu trantsizio prozesuak modu kolaboratiboan gauzatzeko”.



“Etapen arteko loturak hezkuntza proiektuetan eta zuzendaritza proiektuetan isla eduki behar du”

Lucia Torrealday, Eusko Jaurlaritzako Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaria

Etapen arteko loturak egiteko balizko egitura bat

LHTik DBHrako etapen arteko loturak egiteko, trantsizio planak egitea aholkatu zuen HEIZEren jardunaldietan EHUko irakasle Nerea Permachek. Balizko egitura bat proposatu zuen, zer eta nola egin daitekeen iradokiz.

Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako trantsizioan bost zubi eraiki behar dira Nerea Permach EHUko irakaslearen ustez.

1. Alderdi administratiboari erantzuteko: ikastetxe biek modu desberdinean funtzionatzen dute eta normalean institutuak handiak izaten dira, sarrera-irteera eta ordutegiak berriak izaten dira, idazkaritza bat baino gehiago egon daitezke...
2. Alderdi sozioemotionala: eskola eremuan 6. mailan zaharrenak izatetik DBHko 1. mailan gazteenak izatera pasatzen dira, horrek barruan sorrarazten dizkien beldurrekin, segurtasun ezarekin eta abar, eta hori dena kudeatu behar da.
3. Curriculumaren inguruan: bi etapen arteko curriculum eta ekintzak bateratu behar dira. “Esate baterako, Lehen Hezkuntzan denbora daramate kompetentzietan oinarritutako metodologiarekin lan egiten eta DBHn esperientzia hori aprobetxatu beharko litzateke”, Permachen iritziz.
4. Alderdi pedagogikoarekin zerikusia duten elementuetan: zubiak eraiki behar dira metodologikoki izugarrizko aldaketak egon ez daitezen. Egokitzapen arrakastatsua izateko, LHn erabiltzen diren metodologia eta estrategia beretsuak jarraitu behar dira.
5. Ikaskuntzaren autogestioari dagokionez: DBHn irakasle askoz gehiagorekin hasten dira lanean ikasleak eta euren ikaskuntzan beste ardura maila bat hartu behar dute. DBHko irakasleen jarduteko modua ere nahiko desberdina da LHkoek dutenarekin. Ekainean LH bukatu eta bi hilabete bakarrik pasatzen dira irailean DBH hasten dutenera, eta

normalean denbora gehiago behar izaten dute metodologikoki gertatzen diren aldaketak ulertzeko.

Ikastetxeetan trantsizioa egiteko kontuan hartu beharreko hainbat faktore daudela gogorazi zuen Permachek eta hiru multzotan banatu zituen:

1. Irakasle-ikasle loturan eragiten duten faktoreak, betiere eskola giroan zerikusia dutenak. Irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan ñabardurak sortzen dira. LHn zeregin bat burutzeko gaitasunari baino garrantzi gehiago ematen zaio prozesuari, ikasteko egiten duten ahaleginari. DBHn, ostera, notek beste arreta guñe bat sortzen dute. Eta horrek guztiak bi aldean arteko harremanean eragina du. Baita elkarrekin pasatzen duten ordu kopuruak ere: tutoreak ordu asko pasatzen ditu ikasle talde berarekin LHn, eta DBHn gutxi, horrek erlazioak eraikitzeke sortzen duen zailtasunarekin eta motibazioan eragiten dituen trabekin.
2. Curriculumean, metodologian eta irakaskuntzako teknikan zerikusia dutenak.
3. Eskola testuinguruarekin eta administrazioarekin zerikusia dutenak: arau berriak, bitartekaritza, autoritatea...

Trantsizio planak

Planak egitea, helburuak jartzea, egituratzea eta idaztea garrantzitsua dela azpimarratzen du Permachek eta baita trantsizio planak hezkuntza proiektuetan txertatzea ere. “Ikaslearen ibilbidean trantsizioa inportantea delako

“Zubiak eraiki behar dira metodologikoki izugarrizko aldaketak egon ez daitezen”
Nerea Permach, EHUko Bilboko Hezkuntza fakultateko irakaslea

txertatu behar da hezkuntza proiektuan”. Trantsizio planak hiru helbururen inguruan eraikitzea gomendatzen du Permachek: ikaslearen eta ikaskuntza prozesuaren jarraipena sustatzeko; familien lankidetzaren bultzatzeko; eta hezkuntza zentron eta inplikaturako eragileen ekin-tzen koordinazioa bermatzeko.

Koordinazioa zutabe

Argi ikusten da jatorrizko eta helmugako ikastetxeen arteko koordinazioa funtsezkoa dela ikasleek trantsizio egokia egin dezaten. Koordinazioa hainbat esparru eta mailetakoa izan daiteke eta denak ondo zehaztuta, izendatuta eta antolatuta egotea aholkatzen du Permachek. Horrela, koordinazio mota hauek sailkatzen ditu:

1. Bi etapetako ikasketa buruen arteko koordinazioa: zentron oinarritzko ezaugarriak buruzko informazioa eta komunikazio bideak irekitzea izango litzateke xedea.
2. Koordinazio curricularra: DBHko zentroetako Didaktika Sailei eta LHko ikasketa buruari, azken zikloko etapako koordinatzaileari edo batzorde pedagogikoari egokituko litzateke koordinazio hori egitea.



3. Tutoretza ekintzen eta aniztasunari erantzuteko neurrien koordinazioa: bi zentroetako orientatzaile taldeei dagokie koordinazio hori eta zereginen artean hauek edukiko lituzkete: absentismo goiztiarra saihesteko neurriak hartzea; zentro berriko DBHko orientatzaileei hezkuntza laguntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko informazioa ematea jarraipen egokia egin dezaten; ikasle taldeen profilarren ezaugarrien informazioa transmititzea ebaluazio diagnostikoa gehituz eta abar.
4. Familientzako harrera prozesuaren koordinazioa: familiek trantsizioan parte hartzea bultzatu nahi baldin bada, haiekin lanketa berezia egin behar da. Informazioa emateaz gain, trantsizioari buruzko lan-saioak egitea gomendatzen da.
5. Ikasleen harrera prozesuaren koordinazioa: orientatzaileek egitea da egokiena, ikasleei prozesu osoaren inguruko informazioa emanez.

Galderetatik abiatuz

Adituen iritziak eta proposamenak entzuteaz gain, jardunaldira bertaratutakoek elkarrekin hausnartzeko aukera izan zuten. Hiru galderen inguruan aritu ziren:

- Zer-nolako koordinazio bideak ditugu?
- Zerk lotu behar da gintuzke etapen arteko harremanetan?
- Zer egin dezakegu ikastetxeetatik, hezkuntza komunitatetik eta administrazioetatik?

Galdera horiek ikastetxe publiko guztietara bidaliko ditu HEIZEk eta erantzun gehiago jasotzen ari da. Behinbetiko baloraziorik ez dute egin oraindik, baina Iñigo Salaberria HEIZEko arduradunak aurreratu duenez, hezkuntzaren inguruan ditugun hamaika erronkekin batera gai horrek ere berebiziko garrantzia du eta izango du hemendik aurrera. “Ikasleek gure ikastetxeetan egiten duten ibilbide akademikoan eta bizi jardueran kokatu behar dugu beste behin begirada. Mundu eta gizarte aldakor etengabe horretan ziurtasunetan oinarritutako hezkuntza eskaintza haien beharretara moldatuz. Aurre egin beharreko erronka ez da makala, baina hezkuntzako profesionalon konpromisoak horri egunerokoan erantzuteko lanean hartzen du esanahia”.

“Jatorrizko eta helmugako ikastetxeen arteko koordinazioa funtsezkoa da ikasleek trantsizio egokia egin dezaten”

Nerea Permach, EHUko Bilboko Hezkuntza fakultateko irakaslea

Trantsiziorako ekintza zehatzak

Trantsiziorako ekintza zehatzak LHko 6. mailan

- **Lan saioak erreferentziazko orientatzaileen eta 6. mailako tutoreen artean.** Hainbat kontzeptu landuko dira: hezkuntzaren trantsizioari, orientazioari eta tutoretzari buruzkoak. Helburua trantsizioa curriculumean txertatzea izango da eta irailetik hasita ikasturte osoan zehar lantzea. 6. mailako ikasleak hurrengo urtean DBH1era joango dira eta, beraz, orientatzaileek eta tutoreek hurrengo etapa ebolutiboaren jakitun izan beharko dute, ikasleei laguntzeko.
- **Orientazio saioak ikasleekin.** Alderdi hauek landuko dira ikasleekin: ikasketa ibilbidearen gaineko informazioa, DBHko ezaugarri orokorrak eta orientazio emozionala.
- **Orientazio saioak gurasoekin.** Ikasketa ibilbidearen informazioa emango zaie, eta baita DBHko



Nerea Permach, EHUko Bilboko Hezkuntza fakultateko irakasleak trantsizioak egiteko balizko egitura bat proposatu zuen.

Trantsiziorako ekintza zehatzak DBHko 1. mailan

etapako ezaugarri orokorren berri ere.

- **Lan saioak ikasketaburuekin eta orientatzaileekin jarduerak koordinatzeko eta informazioa transferitzeko.** LHtik jasotako dokumentazioaren arabera, hainbat lan saio egingo dira: Hezkuntza Premia Berezia dituzten ikasleen azterketa, trebetasun instrumentaletan taldearen profila ezaugarritzea, eta taldeko profila eta gainerako dokumentazioa tutoreekin partekatzea, hezkuntza taldeko guztiek eskura eduki dezaten.
- **Ikasleen bisitak.** Ikasle berriak DBHko zentrorra gonbidatu ikastetxearen berezitasunak, bizikidetzeta eta funtzionamendua ikus ditzaten. Bertako ikasleek euren bizipenak eta esperientziak kontatzea ere interesgarria da, trantsizioa nola bizi izan zuten jakite aldera. horrekin batera, ikastetxeko instalazioak eta espazioak ikusiko lituzkete bisitan, irailean iristen direnean espazioa hain arrotza ez izateko. Bisitareren amaieran mokadutxo bat eskaintzea egokia da ikasturte amaiera ona opaz eta hurrengorako ongi etorria emanez.
- **Gurasoen bisitak.** Ikasleekin bezala, gurasoei ere zentroaren kulturari, berezitasunari, bizikidetzari... buruzko azalpena emango zaie bisitan.

Ekintza horiek denak ikasturtean zehar landuz eta eginenez joan behar dela esan zuen Permachek, eta ebaluazio jarraia eta formatiboa egitea lehenetsi zuen. LHtik DBHrako trantsizioa arrakastatsua izan dadin, formazioa ezinbestekoa da, eta horregatik azpimarratu zuen Permachek trantsizio planek formazioa bere gain hartu behar dutela.

“Trantsizio planek formazioa bere gain hartu behar dute”

Nerea Permach, EHUko Bilboko Hezkuntza fakultateko irakaslea



“Adostasun sozial berrietan
azeleragailua zapaldu
behar da”

ELKARRIZKETA:

PAUL BILBAO

IDURRE ESKISABEL

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSI OHIA
ETA IDAZKARI NAGUSI BERRIA

Idurre Eskisabelen (Beasain, 1970) eskuetan utzi du Paul Bilbaok (Algorta, 1971) Euskalgintzaren Kontseiluaren idazkari nagusi kargua, Kontseilua sortu zela 25 urte bete direnean. AEK utzi eta itzulpengintzan hasi berria zen Bilbao duela 25 urte. 2001. urtean Kontseiluaren baitan sortutako Hizkuntza Eskubideen Behatokia hasi zen lanean eta 2010ean hartu zuen Xabier Mendigurenen lekukoa Kontseiluko idazkari nagusi gisa.

Euskalgintzako topagunea sortutako urtean Euskaldunon Egunkarian zebilen Eskisabel. Ondoren Antropologia ikasketak egiteaz gain, EHUko Kazetaritza fakultatean aritu da eskolak ematen. Etorkizunean hartu beharko diren hizkuntza politiken aurrean euskalgintza sendoa behar dela azpimarratzen dute, adostasun sozialak bilatuko dituen. Bilbaok ez dauka zalantzarik lemazain ezin hobe izango dela Eskisabel.



Euskalgintzaren erakundeak batzeko eta euskararen normalizazioaren alde elkarrekin jarduteko sortu zen Euskalgintzaren Kontseilua duela 25 urte. Zergatik jo zen ezinbestekotzat elkargunea sortzea eta elkarrekin jardutea?

Paul Bilbao: Elkarrekin lan egiteak indar handiagoa ematen duelako. Euskararen arloan sektoreka egiten zen lan eta modu orokorrean jarduteko beharra zegoen. Koska bat gorago egitea behar zen, hizkuntza politika modu integralean hartuta beharrak non zeuden ikusteko. Eta horrez gain, euskalgintzako eragileentzat agora edo plaza bat sortu nahi zen elkarrekin hitz egin zezaten.

Idurre Eskisabel: Nik pentsatzen dut beste pultsio bat ere bazegoela ziur aski; zatiketa politikoaren ezinari aurre egiteko modu bat. Ez zait asko gustatzen politika hitza zer terminotan ulertzen dugun, edo zertara mugatzen dugun, hau da, alderdien arteko jokora. Baina egia da, ziur aski, garai hartan gatazka armatuaren inguruko guztiak asko zipriztintzen zuela dena eta nik uste dut bazegoela horren gainera hegan egiteko gogoia. Ez dut esango euskara despolitizatzea, baina bai eus-

kara beste modu batera politizatzea gogoia. Alde horretatik, gaur eguneko ere ez zait iruditzen oso jokaleku diferentea denik, gatazka armatua parte handi batean desagertu bazaigu ere alderdikeria hor dagoelako edo politika jokaleku horretara murrizteko joerak irauten duelako. Oraindik ere elkargune izateko funtzioa oso premiazkoa dela uste dut, nolabait politika askoz ere adiera zabalagoan eta sendoagoan ulertuta.

Elkarlanaren xedea euskararen normalizazioa azkartzeko hizkuntza politiketan eragitea da. Azkartzeko beharra ikusten al da?

P. B.: Berez, edozein hizkuntza gutxi-uren normalizazio prozesuak azkartasuna behar du. Gu ez gara katramilatzen zenbateraino egin den, asko edo gutxi, kontua da euskara ez dela normalizatu, eta horrek esan nahi du azeleragailua gehiago zapaldu behar dugula. Nik beti jartzen dut Korrikaren adibidea: zergatik ateratzen gara Korrikan korrika egitera eta paseatza? Sinbologia hori dago; behar dugulako. Hizkuntza baten berreskurapen prozesuan normalizazioak bi hanka dauzka: soziala eta politikoa. Hanka politikoa ere bai, hizkuntza politikak behar dira.

I. E.: Azkartzeak Iparraldean beste bi adiera ditu: indartzea eta jakituria izatea. Antso Azkarra ez zen korrikalari bikain bat, jakintsua baizik. Hau da, bizkor aritzeaz gain, sendo aritzea eta jakitatez eta ezagutzaz aritzea ere bada.

Pertsonok munduarekin daukagun harremana aldatzen ari da teknologizazioaren ondorioz, eta baita hizkuntzekin daukagun harremana ere. Gure etxeetan haurrek, nerabeek eta gazteek hiruzpalu hizkuntza erraz erabiltzen dituzte, eta gainera, funtzionalki. Iragazkortu egiten dituzte eta gorpuztu egiten zaizkie. Egoera horretan gurea bezalako hizkuntza gutxitu baten aldeko hautua egitea gero eta konplexuagoa da, baldin eta bestelako politika publiko batzuk —oso azkarrak direnak zentzu guztietan— aplikatzen ez baditugu.

Zein eremutan ikusten duzue azeleragailua zapaltzeko beharra?

P. B.: Adostasun sozial berrietan. Hizkuntza politikak bi norabide hartu behar dituzte: ezagutzaren unibertsalizazioa eta erabilera osorako espazioak. Hasteko, herritar guztiak euskara ezagutzea behar dugu. Hori oinarritzkoa da edozein hizkuntzaren berreskurapen prozesuan. Eta ondo-

ren, erabilera erosoarako espazioak sortu behar dira eremu sozioekonomikoan, ingurune digitalean, aisialdian eta abar. Bi norabide horietan urgentziaz jokatu behar da, eta orain oso une interesgarria da, hurrengo urteetan hizkuntza politketan erabakiak hartu beharko dituztelako, eta euskalgintzak sendo egon behar du.

Ezagutzaren unibertsalizatorako hezkuntza ezinbesteko gunetzat hartu izan da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Hezkuntza Lege berria lantzen ari dira eta Kontseiluak proposamenak egin ditu. Zer eskatu duzue zehazki?

P. B.: Helburuan adostasun soziopolitiko dago: ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean B2 gaitasuna izan behar dutela gutxienez —gutxienez azpimarratzea gustatzen zait, ahal dela C1 lortu dezatela—. Hori da ardatza, baina ez da nahikoa helburua jartzea, bidea ere jarri behar da, eta Kontseiluak bidea proposatu du: euskara ikas- eta irakas-hizkuntza izango duen ikas eredu orokortua. Gero, hori oinarri, ikastetxe bakoitzak, bere errealitate soziolinguistikoari erreparatuta, bere hizkuntza proiektua egingo du. Baina oinarri batean gaian: euskara ikas- eta irakas-hizkuntza izatea.

Horrez gain, euskal curriculumari dagokionez, hizkuntza eta kultura ezin direla bereizi diogu. Eremu ez-formalerako ere proposamen zehatzak egiten ditugu, haurrek eta gazteek espazioak behar dituztelako, besteak beste, hizkuntzaren funtzionalitatea ikusteko.

Azken batean, hizkuntza gutxitu baten berreskurapen prozesu bati buruz ari gara eta Hezkuntza Lege honek uneoro izan behar du buruan hizkuntza gutxitu bat dagoen esparru geografiko baterako legea dela. Ez da hizkuntza hegemoniko bakarria dagoen toki baterako.

2018an Kontseiluak “Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen” proposamena egin zuen. Ikastetxeentzat baliagarria eta erabilgarria izaten jarraitzen du euren hizkuntza proiektuak egiteko?

P. B.: Bai, noski, dudarik gabe. Pro-

posamenean helburua lortzeko bidea zehazten da eta gaurkotatzen ez du galdu. Gainera, azpimarratzekoa da proposamenaren atzean ikasle euskaldun eleanitzunak sortu dituzten eragileak daudela: ikastolak, kristau eskolak eta ikastetxe publikoak. Haiak daukate eskarmentua.

Proposamenean irteera profila zehazten da. Gero, atal oso bat eskaintzen zaio denbora esposizioari eta hortik ondorioztatu zen beharrezkoa dela euskara ikas- eta irakas-hizkuntza izatea. Ebaluazioa ere landuta dago eta Haur Hezkuntzatik hasita neurri zuzentzaileak hartzea proposatzen da. Ebaluazioa ez da ulertzen gainditu beharreko azterketa gisa, baizik eta neurri zuzentzaileak jartzeko egin beharreko ariketa gisa. DBH4 amaitzen dutenean ikasleek hizkuntza gaitasunik ez dutela lortu ikusten baldin bada, zer egin daiteke orduan? Ezer ez, beranduegi da. Aurretik hartu behar dira neurriak eta hizkuntza proiektua da horretarako tresna.

I. E.: Nik uste dut gai horretan garrantzitsua dela azpimarratzea ez dela ikasle bakoitzari jarriko zaion exigentzia bat, baizik eta eskaini behar zaion zerbitzu bat, bere formazioaren barruan eman behar zaion zerbaitekin, beste baliabideak ematen zaizkion bezala. Bestela, ikasle horrekiko desleiala eta oker jokatzeko ari gara. Hezkuntzak bere buruari oinarrikoak diren beste konpromiso batzuk aitortzen dizkion moduan, euskaraz txukun jarduteko adina ezagutza ematea ere ikaslearekiko konpromisoan sartzen da bete-betean, Euskal Autonomi Erkidegoko eremuan bereziki, bi hizkuntza ofizialetako bat den heinean.

P. B.: Bestela, aurrez ikusitako heriotza baten kronika litzateke, badakigulako ikasle bat Lehen Hezkuntzan A edo B erudian hasten baldin bada nola bukatuko duen. Pelikula hasi denetik dakigu zein izango den pelikularen amaiera. Eta hori injustizia hutsa da. Hezkuntza sistemak ahalbidetzen du ikasle horrek beste ikasleek baino gutxiago jakitea. Eta horrela ez da kohesiorik lortuko. Diskriminatzen ari gara eta badakigu hasieratik bertatik.

“Oraindik ere elkargune izateko funtzioa oso premiazkoa dela ustedut”

Idurre Eskiasabel

“Hizkuntza politikek bi norabide hartu behar dituzte: ezagutzaren unibertsalizazioa eta erabilera osoarako espazioak”

Paul Bilbao

“Euskaraz txukun jarduteko adina ezagutza ematea ere ikaslearekiko konpromisoan sartzen da bete-betean”

Idurre Eskiasabel

“Hezkuntza Lege berriak uneoro izan behar du buruan hizkuntza gutxitu bat dagoen esparru geografiko baterako legea dela”

Paul Bilbao”



Gaixorik dagoen bati sendatzeko botika badaukagula baina ez diogula emango esatea bezala da. Botere publikoen erantzukizuna da haur horri arlo guztietan ahalik eta hezkuntza hobereana eskaintzea. Horregatik, gu jautziaz ari garenean justizia sozialaren ikuspegitik ari gara.

Gehiengo sindikalak, euskalgintzak eta hezkuntza komunitatearen zatirik nagusienak defendatzen dute Kontseiluaren proposamena. Legearen aurrean beste posizio batzuetan erabat antagonikoak diren eragileak batzea lortu dugu eta uste dugu laguntza handia dela alderdi politikoentzat hizkuntzaren korapiloa askatzeko. Ez dute lortuko halako adostasunik bestelako gaietan.

Zein dira Kontseiluak Nafarroan dituen erronkak?

P. B.: Nafarroan egiturazko arazoa daukagu: zonifikazioa. Euskara ez da hizkuntza ofiziala eta botere publikoek ez daukate inolako betebeharririk euskararen irakaskuntzari begira. Orduan, dena borondatearen baitan dago. Egia da lege aldaketa egon zela eta ondorioz eremu ez euskaldunean hezkuntza publikoan

D eredia eskain daitekeela. Legeak ahalbidetzen du, baina Mendigorriak gurasoek ia-ia auzitegian amaitu zuten. Euskara gatazkarekin lotzea lortu nahi dute.

Nafarroan badaukagu egiturazko beste arazo bat ere: PAI ereduarena. Eredu hori jarri zutenean, orduko gobernuko lehendakariak honela esan zuen batere lotsarik gabe Madrillgo telebista batean: PAI eredia euskarazko hezkuntza galgatzeko eredia da. Orain hura ez dago gobernuan, baina daudenak PAI sistema eredu bihurtu nahian ari dira.

Nafarroako Eskola Kontseiluak garatu duen ituna ere hor daukagu eta gu oso kritikoak gara itunarekin. Prozesu espres bat izan da eskola itunarena, eta azken helburua PAI ereduak babes soziala duela ikusaraztea izan da.

Iparaldeko egoerari buruz zein balorazio egiten duzue?

P. B.: Ipar Euskal Herriko hezkuntzan udaberri edo loraldi bat gertatzen ari da. Seaskak historikoki ekarpen izugarria egin du eta eskaerari erantzun ezinik dabilenaren sentsazioa daukat. Seaska behar

dugu, gure herriak, Euskal Herriak, hezkuntza sistema propio bat behar duelako, eta gaur egun ikastolek betetzen dute hori. Eta horrekin batera, administrazio guztietan eskola publiko sendoak behar ditugu. Nire ustez erabat osagarriak dira.

I. E.: Oso polita den fenomeno bat gertatzen ari da Iparraldean. Orain dela gutxi arte euskarazko irakaskuntza familia euskaldun abertzaleen bilgunea izan da. Azken urteetan oso eremu frantsesetik datorren jendea ere bat egiten ari da eta arrazoiak komunitatearen beharra da. Haietako asko oso gune hiritartuetatik datoz eta deserrotze prozesuak bizi izan dituzte. Komunitate bat aurkitzen dute euskarazko irakaskuntzan eta ikuspegi hori ere interesgarria da.

Bestalde, Baionako Bernat Etxepare lizeoa momentu honetan Euskal Herriko gazte batek, euskaltzalea den gazte batek edota ohikoenak diren bideetatik aparte jakin-minak dituen gazte batek topa dezakeen gune interesgarrienetako bat denaren inpresioa daukat. Eta inportantea iruditzen zait hizkuntzaren ardatzak ekarri duela gune hori hain interesgarria izatea. Haien hezkuntza proiektuan —nonbait, gainera, oso ona dena— hizkuntzaren ikuspegitik eta euskarari zehazki lotuta, erabileraren eremua ere ematen diote. Euskarari euskal kulturarekin eta historiarekin lotutako zentzua ematen zaio eta hori gutzia jasotzen dute. Hizkuntzaren eta haren auziaren inguruan gogoetarako bidea ematen zaiela iruditzen zait, eta hortik asko jasotzen dela baita ere. Gazte horiengandik datorren loraldia dago Iparraldean.

40 urte dira Euskararen Legea egin zela EAEn eta betebeharrak batzuk ezarri ziren. Oraindik ez dira bete edo bermatu. Zergatik behar da hainbeste denbora?

P. B.: Hizkuntza politikak sustapen eta arau politikak izan daitezke. Hemen sustapena bultzatzeko joera egon da —agian horretan sinesten zutelako— eta gauza batzuk bai ala bai sustapen bidez egin behar dira; ezin da arautu kalean euskaraz hitz

egitea, adierazpen askatasunaren aurka doa. Baina beste gauza batzuk arautu egin behar dira. Adibide bat jarriko dut: Katalunian solariumak arautzeko dekretu bat dute eta osasuna, segurtasuna eta abar arautzen ditu, eta horrez gain, horiek guztiak barnebiltzen dituen arau bat du, zeinak esaten duen herritarren segurtasunarekin, osasunarekin... zerikusia duen guztia gutxienez katalanez egongo dela. Ez da katalanaren aldeko neurri bat, baizik eta solariumak arautzeko neurri bat non eskubideetara eramaten den eztabaida. Hemengo politika solariumetan informazioa euskaraz jartzeagatik diru laguntzak ematea izango litzateke. Euskal Herriko gizartea, eta bereziki EAEkoa, euskararen aldekoa da. Halako neurriak hartzen baldin badira eta ondo azaltzen baldin badira, herritarrak, herria, gizarte eragileak, aldeko dituzu. Sustapena ongi dago, baina araugintza ere behar da, osagarri dira. Eta horrek prestigioa ematen du.

I. E.: Sustapen politikek jarrerak aldatzea dute helburu eta araugintza ezinbestekoa da horretarako. Elkarbizitza bermatzeko da. Ez dugu ahaztu behar euskararen biziberritze prozesua gizarte eraldaketa prozesu bat dela, are gehiago, emantzipazio prozesu bat. Eta eraldaketa prozesu guztiek, eta are emantzipazio prozesu guztiek, botere harreman batzuen berrikuste bat daukate beren baitan. Pribilejio batzuei buruz hitz egitea eta hori ere birbanatzea. Ezin da hizkuntza bat normalizatu jendeari portaeretan eta abarrekotan eraginik sortu gabe. Ondorioz, eraldaketa eta emantzipazio prozesu guztietan beti sortzen dira erresistentziak. Beti. Eta nik uste dut euskalgintzaren historia badela beti erresistentzia horiei aurre egin behar izatea, momentu batzuetan era batera eta beste batzuetan beste era batera, bai gure praktikean, proiektuetan eta ekimenetan eta baita guk geure burua ikusteko moduan ere.

Zein bide jorratuko ditu Kontseiluak hemendik aurrera?

P. B.: Gizartean euskararen aldeko adostasuna dagoela ikusirik, adosta-

sun horiek gero eta zabalagoak izan daitezten lortu nahi dugu, eragiteko. Hizkuntzaren gaia sozializatu behar dugu, euskalgintzaren afera bakarrik ez dela erakutsi, eta beste eragileak ere hizkuntzaren perspektiban jarri. Horretarako, gure oinarri politikoa adostea izan da lehendabizikoa lana, eta hemendik aurrera espazio berrietan partekatu behar dugu, hizkuntza politiketan aldaketak egon daitezzen. Arnas luzeko kontua da, baina hori da bidea, eta Kontseiluak bidea erraztu nahi du. Kontseiluak zerbait baldin badu hori baita, administrazioari eta politikariei bidea errazteko egiten dituela ekarpenak. Kritikoa izan behar badu kritikoa da, baina beti jartzen du alternatiba. Kontseiluaren bokazioa beti izan da laguntzea, erraztea, proposamenak mahai gainean jartzea. Eta orain, Kontseiluarenak bakarrik ez diren proposamenekin gatoz, beste eragile batzuen babesa duten proposamenekin, adostasun zabalagoekin.

I. E.: Nik ere bidea hortik ikusten dut. Erresistentzia aipatzen genuen eta gakoetako bat hor ikusten dut: nola zabaldu, hedatu, ulertarazi, jabeazazi jendea, ez dela euskaldunon kontua soilik, baizik eta hori gainditzen duen zerbait, demokraziarekin eta justizia sozialarekin lotuta dagoena. Iruditzen zait ezinbestekoa dela euskalgintzatik kanpoko gainerako eragileekin partekatzea, hitz egitea, ikustea zer bide egin genezakeen elkarrekin. Goazen eragile diferenteen artean hizkuntzaren afera ere hor jartzera, hizkuntzaren auzia auzi demokratikoa eta justizia sozialekoa baita. Horregatik, goazen linguistikoki benetan demokrazia eta justizia sozialekoa den jokalekua sortzera behingoz.

P. B.: Eta horrekin batera ea beste kultura bat zabaltzea lortzen dugun gobernantza arloan. Zeren instituzioekiko harremana hiru modutakoa izan daiteke. Bata diru laguntza harremana; nik proiektu bat daukat eta zuk dirua ematen didazu. Bi, lankidetzaz, elkarrekin proiektu bat egitea. Eta hiru gobernantza, gizarte eragileon ekarpen politikoek ere tokia izatea, jakinda botere publikoei dagokiela erabaki politikoak hartzea.

“Legearen aurrean beste posizio batzuetan erabat antagonikoak diren eragileak batzea lortu dugu eta uste dugu laguntza handia dela alderdi politikoentzat hizkuntzaren korapiloa askatzeko”

Paul Bilbao

“Baionako Bernat Etxepare lizeoa Euskal Herriko gazte batek topa dezakeen gune interesgarrienetako bat denaren inpresioa daukat. Hizkuntzaren ardatzak ekarri du hain interesgarria izatea, erabilera eremu baita”

Idurre Eskisabel

“Jendea jabeazazi behar dugu euskararena ez dela euskaldunon kontua soilik, baizik hori gainditzen duena, demokraziarekin eta justizia sozialarekin lotuta dagoena”

Idurre Eskisabel

ESPERIENTZIAK

'HAURRAK EUSKARAZ LORATZEN LAGUNDU'

Hezkuntza ez-formala, elkarbizitza eta hizkuntza erdigunera

Seaskako ikastoletan garatutako proiektua da 'Haurrak euskaraz loratzen lagundu'. Seaskan lanean ari diren irakasleei eta hezitzaileei kezka sortu zitzaien alde batetik, euskararen erabilera nabarmen apaltzen ari zelako, eta, bestetik, elkarbizitza arazoak gero eta ugariagoak zirelako. Egoera hori aintzat hartuta abiatu zuten egitasmoa. Seaskako hezkuntza taldeko kideekin batera, euskararen erabilera sustatzeko eta aukera berdintasunean zein modu ludikoan hezteko testuinguruak eraikitzeke ahaleginean ari dira Zirimola Aisialdi Taldeko kideak.

Kezka handia sortu zen Seaskan ikastoletako aisia eremuaren bilakaerarekin. Ikasleek zituzten harremanek eta hizkuntzaren erabilerak kezkatu zituen, bereziki, hainbat gune kutsu frantsesa hartzen ari zirelako. Eremu euskaldunenetan ere behera egiten ari zen euskararen erabilera eta, bitartean, gora zihoazen elkarbizitzarekin lotutako arazoak: haserreak, bazterketak, adin ezberdineko ikasleak ez ziren elkartzen, mutilak mutilekin ibiltzen ziren eta neskak neskekin... Arazo horiek hainbat ikastolatan antzeman zituzten eta Seaskako hezkuntza taldearekin batera zernolako egitasmoak bidera zitzaketen aztertzeari ekin zioten. Aritz Bereziartua, Seaskako Gorputz Hezkuntzako irakasle eta Ikastolen Elkarteko Zirimola aisialdi taldeko kideak hainbat esku-hartze egiten hasi zirela azaldu du: "Hainbat





jolas eta joko proposatu genituen, hizkuntzaren gaineko lanketak egin genituen... Baina adabakiak ziren, unean uneko arazoak konpontzeko hartzen genituen neurriak baino ez, eta gaiari errotik heldu behar geniola ohartu ginen. Are gehiago kontuan hartuta ikasleek euren denboraren % 40 pasatzen dutela aisia-esparruko guneetan eta haien arteko komunikazioaren % 80 hizketa informalean izaten dela: goizeko zaintza dela, jolasgaraiak direla, bazkal aurreko edo ondorengo ordua, arratsaldeko zaintzak, eskolaz kanpoko ekintzak...”.

Benetako murgiltzea bermatzeko eta hezkuntza proiektuak osotasunean garatzeko, hezkuntza ez-formala erdigunean jartzea ezinbestekoa zela ikusi zuten, eta gela barneko jardunaren maila berean jarri behar zela ondorioztatu zuten.

Jolasa ardatz, kultur eragile eta sortzaile

Gorputz Hezkuntzako saioetan egin

zuten lehen egokitzapena Bereziartuak azaldu duenez: “Bizijolas egitasmoaren baitan 2012. urtetik ari gara Seaskako ikastoletan Gorputz Hezkuntzako saioak bideratzen. Saio horietan hainbat jolas eta joko egiten ditugu, baina gure helburua harago doa: euskal curriculumaren barnean eraikitako hainbat sekuentzia diseinatzen ditugu eta sekuentzia horien amaieran, kompetentziak ebaluatu behar ditugun unean, sorkuntza fasea deitzen duguna proposatzen dugu. Ikasleei zenbait bizipen eskaintzen dizkiegu eta, ondoren, egindako jolas eta joko horietan oinarrituta, taldean euren jolasa sor dezaten eskatzen diegu. Gela bakoitzean lauzpabost jolas sortzen dituzte eta gustukoena aukeratzen dute. Ondoren, ikastolako jaialdia antolatzen dugu gela guztietan sortutako jolasekin zein jokoekin. Azken urratsa ikastolen arteko topaketa izaten da. Ikastola bakoitzak gainerako ikastolei bere proposamena aurkezten die eta

“Ikasleak aisialdian ahalduntzeko eta esperientzia gozagarriak euskaraz bizitzeko testuinguruak eskaintzea oso aberasgarria da”

Aritz Bereziartua (Seaska)

ESPERIENTZIAK: HAURRAK EUSKARAZ LORATZEN LAGUNDU

“Kanpo espazioak fisikoki aldatzeko interesa genuen, futbol zelai batean edo eremu estandarizatu batean baloi bat uztearekin batera, hainbat jarrera, portaera zein balio eta harreman eredu jakin batzuk sustatzen ari ginela ikusten genuen”

Aritz Bereziartua (Seaska)

taldeak nahasiz, guztiak elkarrekin aritzen dira”.

Gorputz Hezkuntzaren bitartez eta jolasa hari gisa hartuta, eremu formal eta ez-formal lotzen dituzte, beraz. “Ikasleak aisialdian ahalduzko eta esperientzia gozagarriak euskaraz bizitzeko testuinguruak eskaintzea oso aberasgarria da”, dio Bereziartuak.

Hainbat egitasmo

Aisia-esparruari hezkuntza merezi duen lekua eskaintzeko, bertan diharduten hezitzaileak aintzat hartzea beharrezkoa da, gehienetan ez baitituzte lan-baldintza duinenak izaten Bereziartuak adierazi duenez: “Aitortza zor geniela sentitu genuen eta hezkuntza proiektuak eta hizkuntza proiektuak garatzeko haien hitza jasotzea ezinbestekoa

zela ikusi genuen. Beraz, lantalde bat osatuta, 2018-2019 ikasturtean *Haurrak euskaraz loratzen lagundu* izeneko egitasmoa abiatu genuen. Bi xede nagusi zituen: alde batetik, hezitzaileei hezkuntza merezi duten aitortza egitea, eta bestetik, hizkuntz portaeran zein elkarbizitzan eragitea, ikasleei oinarrizko ezagutzak eta hainbat tresna eskainiz”.

Bidean aurrera eginez, 2019-2020 ikasturtean, haurrak erdigunean jarri zituzten eta haien kultura sustatzeko helburua duen *Gure jolastegia* proiektua jarri zuten martxan: “Kanpo espazioak fisikoki aldatzeko interesa genuen, futbol zelai batean edo eremu estandarizatu batean baloi bat uztearekin batera, hainbat jarrera, portaera zein balio eta harreman eredu jakin batzuk sustatzen ari ginela





ikusten genuelako. Erronka ez zen makala, errealitate hori Seaskako errealitatera egokituta irauli behar baikenuen: gogoia ehun, baliabideak zero”, dio Bereziartuak. Komunitate osoaren inplikazioa eta elkarlana azpimarratzekoak izan ziren eta hezitzaileen zein irakasleen esanetan, ikasleengan izan duen eragina biziki positiboa izan da. Ortzaizeko ikastolan abiatu zuten egitasmoa, eta Itsasuko Arrokaragai ikastolan eta Donapaleuko Amikuze ikastolan gauzatzen ari dira gaur egun.

Ikasturte honetan, berriz, *Kanpo tenoreak kudeatzen* egitasmoa abiatu dute Senpereko Zaldubi, Sarako Olhain, Ziburuko Kaskarotenea eta Lekorneko Baigura ikastolekin batera. “Bi ikasturteko ibilbidea izango duen ekintza-ikerketak izango da. Helburua, ikastola bakoitzak daukan errealitate soziolinguistikotik, fisikotik, materialetik eta pertsonaletik abiatuz, aisia esparruko une eta gune bakoitza euskalduntzeko eta gune horiek hezitzaile bihurtzeko testuinguruak berrantolatzea da. Hainbat baliabide nola uztartu eta nola kudeatu aztertzea, alegia. Hori guztia jolas askea oinarri gisa hartuta eta ikasleen autonomia sus-

tatuz”, azaldu du Bereziartuak.

Eta horrela jarraitu du: “Gure ametsa ikasleak euskal hiztun oso izatea da, euskalduntzean eragin nahi dugu, haurrek euskara modu espontaneoan erabil dezaten. Hezkuntza eta hizkuntza xedeak erdies-teko, ahalegin berezia egin behar da hezkuntzan aisia esparruak indartuz eta Euskal Herri osoan ikasleei euskal kulturaren oinarritutako bizipen positiboak izateko aukera anitzak eskainiz”.

Aisia ezinbesteko esparrua da hezkuntzan eta garrantzitsua da gela barruko zein gela kanpoko curriculum maila berean jartzea. Horrek guztiak Euskal Herriko Ikastolen Elkartean aisiari buruzko marko orokorra sortzea bultzatu du: “Marko horretan oinarrituko da Zirimola aisialdi taldea Euskal Herri osoan hainbat esku-hartze bideratzeko: Aisiola begirale eskola, udalekuak, egonaldiak, hezitzaileentzako formakuntzak, jolas eta joko topaketak, Pulunpa egitasmoa... Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Araban, Gipuzkoan, Nafarroa Garaian eta Bizkaian aisialdirako ipar gisa hartu nahi dugun markoa da”.

“Gure ametsa ikasleak euskal hiztun oso izatea da, euskalduntzean eragin nahi dugu, haurrek euskara modu espontaneoan erabil dezaten”

Aritz Bereziartua (Seaska)

EKARPENAK

'EUSKAL PEDAGOGOAK LOKATZETAN' LIBURUA

Joxe Mari Auzmendiren biografia, eredu eta akuilu

Joxe Mari Auzmendi buruzko liburua argitaratu du Hik Hasi egitasmo pedagogikoak. A-tik Z-ra, haren lana, bizitza eta batez ere balioak jasotzen ditu liburua, gaur inoiz baino gehiago aldarrikatu beharreko hezkuntza balioak: ausardia, zubigintza, zaintza, konpromisoa...

Hezkuntzarekin, euskararekin eta hobekuntza pedagogikoarekin konprometituak dauden, irakasle guztiek irakurri beharreko liburua da.



Joxe Mari Auzmendi eskainitako liburuaren azala. Haren hezkuntza balioen araberako egitura du lanak.

Bizitza oso bat euskalgintzari, herrigintzari eta hezkuntzaintzari emana, horrela laburbildu daiteke Joxe Mari Auzmendiren biografia. Bizitza bat agudoegi bukatua, ordea. Bizitza

bat, ezagutzea merezi duena. Bizitza bat eredugarri eta akuilu dena; eredugarri eta akuilu, bereziki, Euskal Herri honen hezkuntza sistema josten diharduten irakasleentzat; eredugarri eta akuilu, euskararekin

eta hobekuntza pedagogikoarekin konprometituak dauden irakasleentzat; etorkizun hobe bat nahi duten irakasleentzat.

Orain, haren heriotzetik hiru urte betetzear daudenean, Joxe Mari

A-tik Z-ra, egileak:

Auzmendi A-tik Z-ra definitzen saiatu dira bidelagun izan dituen irakasle, idazle, hezitzaile eta lagunak *Euskal pedagogoa loka-tzetan* liburuan. Abenduaren 1ean aurkeztu zuten liburua Donostian eta abenduaren 10ean Durangoko Azokan aurkeztuko dute eta han egongo da salgai (ondoren baita Hik Hasiren webgunean eta liburu-dendetan ere).

Ariketa zaila izan da A-tik Z-ra Joxe Mari definitzea, balio garrantzitsuak gorpuztu baititu 40 urtetan egin duen ibilbide oparoan. Oroz gain, haren konpromisoa, ausardia eta batasuna nabarmendu dituzte liburuan parte hartu duten irakasleek eta idazleek: “Euskarak eta hezkuntzak mundua eraldatzeko, bizigarriago eta justuago egiteko gaitasuna dutela zabaltzen zenuen, fededun baten moduan —idatzi du Lorea Agirrek—. Horretan aurretik joan ohi zinen, taldea biltzen, aurrera begira, eta, sarri, garairako aurreratuegi ere bai, geroak frogatu digunez. Zuri ikasi genizun geure galbahetik pasarazi behar dugula, geurera ekarri, geure neurrira eta ezaugarrietara egokitu besteei ikasia. Adibidez, demokrazia ez dela liburuetan ikasten, demokrazia praktikan jarritz ikasten dela eta gurean demokrazia praktika bat auzolana dela”.

Abeze gisan, garai hobeetarako hiztegi bat osatuko bagenu bezala, haurtzarotik heriotzera, eta batez ere 40 urtean egindako ibilbidea jasotzen du liburua. Azkaraten jaio bazen ere, Legazpin hazi zen Joxe Mari eta hango garai grisetan, 70eko hondarretan eta 80eko hasieretan, euskalgintzan egindako lehen urratsak mugarri izango dira bizitza osoan egingo duen ibilbiderako: batetik, Huescan estudiantutako kimikari lanak baztertu eta

- **Izaskun Madariaga**, *Hitzen jostalaria*
- Ausardia: **Maialen Lujanbio**
- Bizizalea: **Lorea Agirre**, *Liluraberen kluba*
- Cromlecha: **Hik Hasi**, *‘Gintza’-ren izpiritua*
- Dermisa: **Josu Txapartegi**, *Eta hau guztia, herriagatik*
- Euskara: **Arantxa Urbe**, *Ezina ekinez egina*
- Futbolaria: **Arantzazu Muñoz**, *Zelaian bezala, bizitzan*
- Gu: **Maialen Izaro eta Olaia Auzmendi Sarasa**, *Irribarre bat sukaldean*
- Hik Hasi: **Ainhoa Azpirotz**, *Enbidoari hordago!*
- Irakaskuntza: **Irene López-Goñi**, *Daltonismo pedagogikoa uxatuz*
- Jostuna: **Jon Sarasua**, *Badakik zer den herrigintza*
- Kimika: **Josi Oiarbide**, *Kimika bereziko prestakuntza, euskarazkoa eta berritzailea*
- Libertatea: **Ane Ablanedo Larrion**, *Joxe Mari, izpiritu libre hori*
- Mundutarra: **Joseba Sarrionandia**, *Joxe Mariren bidaia amaigabea*
- Norabidea: **Amagoia Mujika** (Bizipoza), *Txori baten begirada*
- Andereño: **Asier Iriondo**, *Andereño bizardun futbolaria*
- Oles: **Hik Hasi**, *Lurra astintzen etengabe*
- Presentzia: **Alfredo Hoyuelos**, *Presentzia sotil bezain indartsua*
- Quoruma: **Olatz Lasagabaster**, *Ekin eta ekin, batera ekiteko aukeren bila*
- Radarra: **Joxe Luix Agirretxe** (Oinherri), *Premiak hautematen trebe*
- Sozia: **Kristina Mardaras**, *SL beharrean, GKE behar lukeen enpresako sozia*
- Testigua: **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**, *Lekuko eta hauspo emaille*
- Umea: **Alvaro Beñaran**, *Haurra hezkuntzaren erdian, bere bizitzaren jabe eta subjektu; horretan genuen eta dugu Joxe Mari aditu*
- Viana: **Aines Dufau**, *Bihotz eta periferien arteko mugarik gabe*
- Watta: **Ainara Gorostitxu**, *Azken wattera arte*
- Xangorin: **Fito Rodriguez**, *Joxe Mari xaloa*
- Y aldagaia: **Pello Otxandiano**, *Euskal hezkuntzagintzaren alkimista*
- Zaintza: **Nora Salbotx**, *Besarkada haien hiztegi ttipia*
- Hitzatzea: **Gloria Sarasa**, *Hitz bakar batean*
- **Irudiak**: Eñaut Aiertzagüena Bravo





Abeze forman, egile ugarik idatzi dituzte Joxe Mari Auzmendiren omenezko liburuen kapituluak.

Haztegi ikastolan hasi zen lanean, bere haurtzaroan mirestu zuen Avelino Sanchez maisu gasteiztarraren eredu gaurkotu eta euskalduna bere eginez, eta bestetik, *gintza*-ren laborategia martxan jarri zuen Legazpin hainbat lagunekin, euskarak orduan zituen hutsuneak betetzeko proiektu multimedia bat abiatu zuten, auzolean. Gerora, ekiteko grina horri eutsi zion Joxe Marik bere ibilbide osoan, euskara, hezkuntza eta herria josiko zituen ekinez, sortuz eta auzolanean. Hala, LAB sindikatuko hezkuntza arloko Gipuzkoako ordezkari gisa euskal hezkuntzagintzak zituen behar larriak identifikatuta iritsi zen 1995ean Hik Hasi egitasmo pedagogikoa sortzera, Euskal Herri osoko hainbat irakasle konprometitu bidelagun hartuta. Joxe Mariren laborategiak martxan jarraitu zuen, eskala nazionalera eraman zuen Legazpiko esperimntua, eta euskarazko hezkuntzagintzari ikusten zizkioten hutsuneak betetzeari ekin zion, lehenik aldizkaria eta ondoren formazioak, materialak, bidaia pedagogikoak, hezkuntza proposamenak... sortuz.

Egindako lanaz gain, egiteko modua nabarmendu dute liburuan parte hartu dutenek. Izaera berezia baitzeukan Joxe Marik, txiki-txikitatik zekarrena: bisio handikoa, ikuspegi

zabalekoa, ekina, konprometitua zen Joxe Mari, baikorra, bateratzailea, abegikorra, zaintzailea ameslaria eta batez ere langilea izan zen Joxe Mari. “Oso zaila zen Joxe Mariri ezetz esatea. Jendea biltzen eta akordioak lortzen oso ona zen. Proiektu bat bisualizatzen hasten zenean konplizeak bilatzen zituen, ea nor elkartu zitekeen horretarako, eta horiengana iristeko erraztasun handia zuen. Jendea inplikatzeko oso abila zen, oso erraz konbentzitzen zuen”, kontatzen du liburuan Mila Apezetxea irakasle eta lagunak.

Zubigilea, batzen gaituenari tiraka

Akordiotarako zuen jarrera izan da hezkuntzaren eremuko kide askok nabarmendu dioten beste ezaugarri bat: LABeko hezkuntza arloko liberatu gisa lehendabizi, eta, ondoren, Hik Hasi barruan, alde desberdinen arteko zubiak eraikitze konfluentziaren bila aritu zen beti Joxe Mari, batzen gaituenari begiratzen zion, sareez, administrazioez eta lurraldeez gaindi. Horixe azpimarratu du Lore Erriondo EHuko irakasle eta UEUko kideak ere libururako: “Beti jende diferentearengana joaten zen, eta beti saiatzen zen jendea integratzen. Bateratzaile ikaragarria zen. Sentiberatasun handia zuen, eta nik uste dut intuizio berezia zuela horretarako. Radar berezia

zuen inor ez zedin isolatua edo gutxiago sentitu. Askotariko eztabaidak eta iritzia zeuden: sareak, publikoaren eta pribatuaren arteko eztabaida, hizkuntza ereduak, lurraldeak, unibertsitatea eta eskola... eta Joxe Marik denak biltzea lortzen zuen”. Bizi ditugun garai hauetan ere, eredu eta akuilu izan beharko luke, Hik Hasiren ustez, Joxe Mariren jarrera baikorrak eta bateratzaileak.

Hik Hasi, Oinherri, Bizipoza...

Azkaraten jaio eta Hernanin 2020ko otsailean hil arte sortu eta akuilatu zituen lan amaigabeak aletzen ditu libururak. Hik Hasi proiektu pedagogikoa eta aldizkaria, haurren jolas-kantuen bildumak, pelikulak, formazioak, *Hazi Hezi* aldizkaria, Oinherri eta Bizipoza elkarteak, euskal hezkuntza sistema nazional baten alde egindako jostuntza lanak aletzen dira liburuan, A-tik Z-ra, baina oroz gain, haren pasioa, koherentzia, eskuzabalatasuna, grina, ausardia, transmititzen saiatzen da liburua. Izan ere, aski merezia bazuen ere, bizitan ez zuen omenaldirik edo eskertza jairik nahi izan Joxe Marik. Atzean egin zuen lan beti. Fokuetatik aparte, ez zitzaion protagonismoa gustatzen. Ikastetxez ikastetxe, irakasleei eta haurrei entzutea gustatzen zitzaion, zer behar zeuzkaten behatzea interesatzen zitzaion, lokatzetan ibiltzea gustatzen zitzaion, jostortza eskuan, mataza luzea patrikan, irria haritzat harturik herria josten, lurralde, sare eta ereduaren gainetik Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala zuen helburu. Gauza batek kentzen zion, ordea, irribarrea: min egiten zion gaurdaino hezkuntza munduan dagoen bereizkeriak, sarearen arteko ezinikusiak. Eta horixe izan da ixtea lortu ez duen zauri bakanetakoa. Baina baikorra zen, erraietaraino baikorra.

Joxe Mari Auzmendiren omenaldi gisa ondutako liburua euskalgintzan, herrigintzan eta hezkuntzagintzan ametsen atzetik lanean ari diren hezitzaile eta herritar guztientzako eredu eta akuilu izan dadin egin du Hik Hasik.



Kamiseta txuria
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta beltza
Lurra herriari deika
19,5 €



Kamiseta gris iluna
Inor ez da ilegala
17 €



Kamiseta gris argia
Inor ez da ilegala
17 €



Kaputxadun jertsea
Inor ez da ilegala
32 €



Sendabelar baratzea
Garbiñe Larrea
14 €



Gure heroiak
Axier Lopez
20 €



Jertsea
Inor ez da ilegala
28 €



Sendabelarrek dakitena
Garbiñe Larrea
25 €



Ilargia eta landareak
Urteko lanen agenda 2023
14 €



Egutegia 2023
Egunero efemeride bat
10 €



Bizi Baratzea
Jakoba Errekondo
23 €

EKARPENAK

NORTASUNAREN ERAIKUNTZA HAUR HEZKUNTZAN

Nor naiz ni?

Haur Hezkuntzan, haurrak etengabe ikasten eta aldatzen ari dira, eta nortasunaren eraikuntzak garrantzi handia du etapa horretan. Nortasuna modu gidatuan lantzeko beharrik ez dute ikusten Leire Perez eta Gaizka Olano irakasleek, baina haurrei euren identitatea eraikitzen laguntzeko tresnak eskaintzeko beharra azpimarratu dute artikulu honetan.

Haur Hezkuntzan, haurrak etengabe aldatzen eta ikasten ari dira, beren bizitzako esparru guztietan, baina garapen horren zati garrantzitsu bat beren nortasuna eraikitzea da.

Cooleyk (2011) azpimarratzen duenez, “Nia ispilu bat da”; hau da, haurrentzat esanguratsuak diren pertsonak ispilua osatzen dute, besteek hari buruz duten ikuspegiaz jabetzen laguntzeko. Gerora, haurrek beren burua ikusteko duten moduan txertatuko dute ikuspegi hori. Haurrentzat, pertsona esanguratsuak beren mikrosistema soziala osatzen duten guztiak dira (familia, lagunak, irakasleak). Beraz, haurrek pertsona horiekin gauzatzen dituzten elkarrekin-tza guztiek berebiziko garrantzia izango dute beren nortasuna eraikitzeko.

Identitatea autoestimua (gure sentimendu eta emozioekin erlazionatzen garen modua) eta autokontzeptuak (geure burua nola ikusten dugun) osatzen dute. Autoestimua eta norberaren ezagutza niaren dimentsio baloratzaile eta iritzi-emaile batekin osatzen dira: zein neurritan baloratzen ditudan nire ezaugarriak eta gaitasunak, nola



LEIRE PEREZ eta GAIZKA OLANO
Haur Hezkuntzako irakasleak

asebetetzen naizen edo ez, pozik nagoen edo ez, nolako naizen. Autoestimuan garrantzitsuak diren dimentsioak adierazteko modua aldatu egiten da adinarekin batera; hau da, gaitasun fisikoa, gaitasun kognitibo-akademikoa, parekoen onarpena eta gurasoen onarpena adierazteko modua.

Autokontzeptuak, berriz, geure buruaz dugun irudiarekin du zerikusia, eta geure burua banako gisa definitzeko eta besteengandik bereizteko erabiltzen ditugun ezaugarrien edo nolakotasunen multzoari dagokio. Subjektu batek bere garapen osoan zehar egindako eraikuntza prozesu aktibo baten emaitza da.

Beharrezkoa al da haurren identitatea ikasgelan lantzea?

Geure ikuspuntutik, identitatea haurren berezko garapenaren parte da. Beraz, ez litzateke beharrezkoa modu gidatuan lantzea; aitzitik, behar diren tresnak eman behar lirateke, hurrek beren gaitasunak eta mugak deskubrituz eraikitzeko. Eskolak hainbat tresna eskaini beharko lituzke haurrei identitate pertsonala zein soziala eraikitzen laguntzeko, bai espazioen eta proposamenen bidez eta bai erritmo desberdinak errespetatuz.

Espazioak

Eskolan, hurrek beren gorputzaren gaitasunak eta mugak esperimentatzeko eta ezagutzeko espazioak aurkitu beharko lituzkete. Espazio horietan, honako hauek esperimentatu ahal izango lituzkete:

- Eraldaketa fisikoak (janztea eta nahi duten modura margotzea), gizarte rolak ulertzen laguntzeko eta gizarte identitatea eraikitzen laguntzeko.
- Parekoekiko interakzioan sortzen zaizkien gatazkak konpontzeko gaitasuna.
- Besteek beraiei buruz ematen dieten informazioaren pertzepzioaren bidez ikastea, beren identitate indibidual eta sozialan integratzeko.

Esperimentazio horretarako espazio egokienak psikomotrizitateko gela, jolas sinbolikorako espazioa, jolastokia, irudikapena, espazioen arteko zirkulazio autonomoa eta abar izango dira.

Denborak

Haurrak beren gorputzen bidez hautematen dituzten beharrak eta sententzioak atseginez integratzeko gai izan daitezen, beharrezkoa izango da pertsona bakoitzaren erritmoa errespetatzea. Pertzepzio horiek nortasunaren eraikuntza positiborako horren beharrezkoa den autonomiaren konkista sustatu eta bultzatuko dute. Beraz, hainbat alderdi zaindu behar dira, hala nola elikadura, atsendena hartu beharra, mugitu beharra,

esfinterren kontrola, atxikimendu objektuen beharra eta abar.

Heldu esanguratsuaren rola

Arestian adierazi dugun moduan, heldu esanguratsu gisa hartzen ditugu haurren mikrosistema osatzen dutenak (haurrarendik gertu bizi direnak edo haurrarekin ohiko elkarreragina dutenak). Lotura eta balorazio positiboek nortasun positibo bat lortzera eramango dituzte, baina gaizki eraikitako loturek eta balorazio negatiboek horren osasuntsua ez den nortasun bat eraikitzen eramango dituzte.

Beraz, eskolan, **haurren erreferentziako helduak prozesu horren laguntzaile gisa jardun beharko du, eta epaiketarik gabeko behaketa oso baten ondoren beharrezkoak diren tresnak, espazioak eta denborak eskaini beharko dizkio.**

Proposamenak

Proposamen hauek eskolako espazioetan txertatuko dira. Proposamen irekiak dira, eta haur bakoitzak erabakitzen du nola eta noiz parte hartzen duen, bere ikaskideak errespetatuz. Horrela, ez dira proposamenok haur guztiakin batera egiten, eta inor ez dago behartuta horiek egitera.

Nola zaintzen da haurren identitatea eskolan?

Haur Hezkuntzan identitatearen eraikuntza zaintzeaz ari garenean, alderdi hauetan jarri beharko dugu arreta:

- Pertsona esanguratsuekiko harremanak kalitatezkoak izatea, hurrek beren niaren eraikuntzan lagunduko dieten pertsonak aurkitu ditzaten, harreran hartu ditzaten, lagundu diezaieten, beren erritmoa errespetatzen eta tresnak, espazioak eta materialak proposa diezazkieten bermatzeko.
- **Niaren eraikuntza bestearen aurkikuntzarekin lotuta dagoenez, parekoen arteko harremanak eta gatazkak nola konpontzen diren zaindu beharko dugu.**
- Espazioek identitatearen kon-

kista bultzatzea eta erraztea, norberaren gorputza aurkitzea eta menderatzea erraztuz bestee-kiko, objektuekiko eta espazioarekiko harremanen bidez.

- **Erreferentzia pertsonalak eta kulturalak (hizkuntzak, ohiturak) nola errespetatzen, zaintzen eta indartzen ditugun begiratu behar dugu, arreta familiaren eta eskolaren arteko harremanean jarrita (eskolako testuinguruetan, jaietan, parte-hartzean).**
- Eta kontuan hartu beharreko azken alderdi gisa, autonomiaren konkista sustatuko duten espazioak sortzea, adin bakoitzaren gaitasun espezifikoa eta egokituta.

Eskolak hainbat tresna eskaini beharko lituzke haurrei identitate pertsonala zein soziala eraikitzen laguntzeko, bai espazioen eta proposamenen bidez eta baita erritmo desberdinak errespetatuz.

EKARPENAK: NORTASUNAREN ERAIKUNTZA HAUR HEZKUNTZAN

ESPAZIOAK	PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA
<p data-bbox="230 388 486 423">ERREPRESENTAZIOA</p> 	<p data-bbox="922 388 1494 623">Ispiluak: horma batean, hautsezinak diren ispilu batzuk aurkituko dituzte, eta ispilu horietan islatuko dira. <i>Chalk paint</i>ak erabili ahal izango dituzte ispiluetan beren irudia irudikatzeko. Proposamen horren lagungarri, hainbat erretratu dituzten liburu ilustratuak jar ditzakegu ondoan, gorputzei eta hainbat arrazari buruzkoak.</p> <p data-bbox="922 717 1520 917">Autorretratua: kartoi kizkur baten gainean, pertsona bakoitzaren argazki bat, A4 neurrikoa, itsatsi, eta azetato gardenez estaliko dugu. Erretilu batean, hainbat koloretako errotulagailu iraunkorrek, eranskailuak, zenbait ehunduratako paperak, kola, dilistak, arroza, orriak eta abar egongo dira.</p>
<p data-bbox="230 1034 469 1070">JOLAS SINBOLIKOA</p> 	<p data-bbox="922 1034 1392 1234">Espazio abegitsua izango da, eta espazio horretan, eraldaketarako oihalak eta objektuak eta egituratu gabeko materiala egongo dira, irudimena eta irudikatu nahi diren egoera sinbolikoak garatzen laguntzeko.</p>
<p data-bbox="230 1434 486 1470">PSIKOMOTRIZITATEA</p> 	<p data-bbox="922 1434 1392 1634">Haurrei beren gaitasunak eta gorputzaren mugak esperimendatzen lagunduko dieten moduluak eta jauzi-espazioak dira. Gune pribilegiatua da, besteekiko harremanak esperimendatzen lagunduko duena.</p>
<p data-bbox="230 1846 563 1881">ATSEDENERAKO ESPAZIOA</p> 	<ul data-bbox="922 1846 1374 2010" style="list-style-type: none"> - Nola ezagutzen eta esperimendatzen dituzten gorputzaren mugak eta gaitasunak. - Jolasean sortzen diren harremanetan nola elkartzen diren beren artean.

ZERI ERREPARATUKO DIOGU?

- Beren irudiaren zer ezaugarri nabarmentzen diren.
- Nola tratatzen duten beren irudia (zirrimarrez betetzen duten, estaltzen duten, markoa jartzen duten).
- Nola eraldatzen duten beren irudia azetatoaren gainean.



- Zer rol betetzen dituzten (errepikatzen diren, aldatzen diren).
- Hainbat rol garatzeko orduan, zer mailatan eraldatzen duten euren burua dituzten materialekin.
- Egoera zailak kudeatzeko zer gaitasun adierazten duten.

- Nola ezagutzen eta esperimendatzen dituzten gorputzaren mugak eta gaitasunak.
- Jolasean sortzen diren harremanetan nola elkartzen diren beren artean.

- Erritmoen eta beharren errespetua.

Azken gogoeta

Helduok gure ekintzen eta hitzen bidez helarazten diegun mezuaz jabetu beharko genuke, haurrak mezu horietan oinarritzen baitira euren identitatea eraikitzeko. Ezin dugu ahaztu, haur batek bere jarrera onartzen ez dela entzuten badu, bere buruaz eraikiko duen irudia negatiboa izango dela, eta horrek guztiak bere burua ulertzeko eta besteak eta inguratzen duen mundua ulertzeko zailtasuna sortuko diola.

Beraz, oso garrantzitsua da parekoen arteko eta helduekiko harremanak zaintzea. Harreman horien bidez ikasten baitute haurrek beren gaitasunak eta mugak kudeatzen, euren burua pertsona gisa ulertzen.

Bibliografia

- PALACIO, J., MARCHES, A. eta COLL, C. (2021). *Desarrollo psicológico y educación 1. Psicología evolutiva*. Alianza editorial.
- PÉREZ-CASTELLÓ, J. A.: “Desarrollo de la identidad en la primera infancia” in *Aula de infantil* 65 (2012), 13-16.

Helduok gure ekintzen eta hitzen bidez helarazten diegun mezuaz jabetu beharko genuke, haurrak mezu horietan oinarritzen baitira euren identitatea eraikitzeko.

EKARPENAK

HEZKUNTZA AKORDIOA

Hezkuntza sistemaren gobernantza: udalen eta komunitatearen papera

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berriaren proposamenen artean agertzen da udalen parte-hartzeari buruzko gogoeta. Gobernantza eredu berri bati begira jarrita, Mariam Bilbatua HUHEZIk irakasle ohiak eta Durangoko Hezkuntza zinegotziak udalen, Hezkuntza Sailaren, hezkuntza eragileen eta hezkuntza komunitatearen funtzioei eta egitekoei buruzko iradokizunak biltzen ditu, norabidea markatuz.

Eusko Jaurlaritzak argitaratu berri duen Hezkuntza Legearen proposamenaren aurrean udalei hezkuntza arloan eragiteko ematen zaien aukeraz baliatuko naiz Hezkuntza Legeak aipatzen duenaz, aipatu beharko lukeenaz eta, bereziki, nire ustez, Hezkuntza Sailak zein beste hezkuntza eragileek sakondu beharko luketen norabideaz hausnartzeko.

Lege proposamenaren 61. artikulua Udal Hezkuntza Kontseiluak eratzeko aukera aurreikusten du. Hautazko aukera, beraz. Ondorioz, ez zaigu argi geratzen zein izango den Hezkuntza Sailaren konpromisoa Legean udalei proposatzen zaizkien eta ondoren aipatzen diren konpromisoak aurrera eramateko: “Hezkuntza proiektu komunitarioak taxutzea eta bultzatzea, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatuz”.



MARIAM BILBATUA
HUHEZIk irakasle
ohia eta Durangoko
Hezkuntza zinegotzia

Eskola Komunitateak indartu

Sistemaren ahuleziek, irakasleriaren egonkortasun ezak, sistemaren burokratizazioak eta administrazioaren lidergo ezak, eskola komunitateak ahuldu dituzte, proiektuak egonkortzeko bideak oztopatu eta irakasleriaren konpromisoa ahuldu.

Horren aurrean, eskola komunitatea indartzeko beharra azpimarratu nahi dut. Izan ere, eskola bakoitzean gertatzen diren egoera konplexuei erantzuteko, eskolaren, irakasleriaren eta komunitatearen barne indarra aprobetxatzea ezinbestekoa da. Kanpoko presioek eskolen barneko gaitasuna indartu behar dute eta ikasleen ikaste prozesuen hobekuntzan eduki behar dute eragina. Goitik beherako estrategia burokratiko eta arrazionalaren ordeztuz, eraldaketarako dinamika autonomoak bultzatu beharko lituzke administrazioak eta erakundeen parte-hartzaileei protagonismoa eman.



Bestalde, testuinguru konplexu eta aldakorrei aurre egiteko gaitasuna duen eskola antolaketa ereduak behar dugu, antolaketa malguta, testuinguru anitzen eta etengabe aldatuko diren baldintzen aurrean, erantzun berriak pentsatzeko eta ezartzeko gaitasuna izango duen eskola, alegia. Bide horretan, Ikaskuntza Komunitatearen ereduak dugu, Fullanek (2002) ondorengo berezitasunak aipatzen dizkiena: taldeko helburu partekatutako bat izatea, proiektuarekiko talde konpromisoa egotea, taldekideen partaidetza ahalbidetzen duen antolaketa, eta ezagutza partekatzea ahalbidetuko duen hizkuntza bateratua izatea. Aipatutako berezitasunak garatzea, hots, ikaskuntza komunitate bat sortzeko eta garatzeko prozesua arrakastaz burutu nahi bada, lidergo pedagogikoa, komunitatea osatzen duten pertsonen arteko konfiantza eta elkarlana ezinbestekoak dira. Hezkuntza lege berriaren ezarpenak norabide horretan diseinatutako irakasleriaren formazioa eta erreferenteak izan daitezkeen proiektuak babesteko baliabideak ziurtatzea ezinbestekoak ikusten ditut, norabide horren arrakasta ziurtatzeko.

Eskola eta tokiko komunitatea

Eskolak berak bakarrik ikasleen desberdintasunak ekiditeko gaitasuna duela adierazten duten espektatiben aurrean, ikerketek erakusten dute eskolak zeregin handia duela. Baina bere ekimenez soilik ezin ditugainditu —eskolaz kanpoko fakto-

reengatik— ikasleen artean dauden desberdintasunak.

Hezkuntza sistemez ari bagara, Euskal Herrirako nahi dugun hezkuntza sisteman erreparatu behar dugu. Izan ere, haurra testuinguru kultural batean bizitzen eta hezten da, eta testuinguru horrek bere nor-tasun heldua eraikitze prozesuan berebiziko garrantzia du.

Aipatutako erronkak lortze aldera, eskolaren eta komunitatearen arteko loturak bi norabidetan kokatzen ditugu: eskola testuinguru sozialean kokatzea eta testuinguru soziala eskolan txertatzea.

Testuinguru sozialak eskolan txertatzeak gertuko curriculumari arreta jartzea eskatzen du, hala nola, gertuko historia eta memoria ezagutzeko aukerak zabaltzea, bizi-penak partekatzeko eskolen arteko ekimenak bultzatzea, elkarbizitza eta parte-hartzea ahalbidetzen dituzten ekimeneetan parte hartzeko aukera sortzea...

Aurreko parrafoan aipatutako testuinguru sozialekiko loturak eraikitzeak hezkuntza eragileen arteko elkarlana behar du eta, horretarako, bi instituzioen ahalegina eta lan bateratua irudikatzen dugu. Alde batetik, familia eta gertuko komunitatearen inplikazioa ahalbidetuko duen eskola antolaketa eta, bestetik, eskolaz eta hezkuntzaz arduratzen diren beste erakundearen arteko elkarlana bideratu dezaketen udalak, mankomunitateak edo beste gertuko erakundeak.

Testuinguru horretan kokatzen ditut Udalaren esku-hartzea eta lan ildo posibleak:

- Ikastetxeekin batera hezkuntza formalaren diagnostiko partekatua eta ildo estrategikoen eraikuntza bateratua diseinatze prozesuak martxan jartzea.
- Estrategikotzat hartu daitezkeen arlo zehatzei zuzendutako proiektu bateratuak bultzatzea: euskara, berdintasuna...
- Hezkuntza formalean eta ez-formalean inplikaturako eragileen arteko ikuspegia bateratzeko elkarlana eta proiektu bateratuak identifikatzeko sortutako hezkuntza foroak sustatzea.
- Herri Hezitzaileen esperientziak bultzatzea.

Hik Hasik proposatutako Hezkuntza Proposamenean (*Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gaioak*, 2017) azaltzen den Herrietako Plana izan daiteke herriko beharrak antzemateko eta herritik erantzun komuna emateko erreferente egoki bat udalentsat, bertan azaltzen baitira Herrietako Hezkuntza Planaren eragileak eta jaso beharko lituzketen esku-hartze eremuak.

Aipatutako lan ildoetan badaude erreferenteak izan daitezkeen zenbait udaletan garatutako esperientziak. Interesgarria litzateke udalek esperientzia horien berri izatea eta ildo horietan udalen lana erraztuko luketen laguntzak martxan jartzea.

“Eskolaren eta komunitatearen arteko loturak bi norabidetan kokatzen ditugu: eskola testuinguru sozialean kokatzea eta testuinguru soziala eskolan txertatzea”

Mariam Bilbatua

AHALDUNTZE ESKOLA

FINANTZA ETIKOAK

Alternatiba, denon eskura

Ohiko banketxeetan izaten ditugu gure aurrezkiak. Baina gure dirua ez dago kontu korrontean geldirik, nahi eran erabiltzen eta inbertitzen dituzte gure sosak. Maiz, gurekin bat egiten ez duten egitasmoetan. Fiare banku etikoa da alternatibak badirela erakusten duen adibide garbi bat: gure dirua seguru dago bertan eta inbertsioak ekonomia sozialaren eta solidarioaren eremuan baino ez dituzte egiten. Finantzaz haratago sarea arlo horretan ari da lanean.

Lau erakundeek osatzen dute Finantzaz haratago sarea: Elkarcredit, Oikocredit, Mugarik gabeko ekonomilariak eta Euskadiko finantza etikoen elkarteak. Finantzaz haratago sareak finantzen arloko heziketa kritikoa eta etikoa bultzatzen du. Ekonomia sozialaren eta solidarioaren alternatibak azaleratzea dute helburu nagusi. Sare horretako kide da Javi Eguiara.

Finantza etikoen arloan egiten du lan Finantzaz haratago sareak. Azalduko al zeniguke zer diren finantza etikoak?

Betidanik ezagutu dugun ekonomia ortodoxoaren eta kapitalaren alternatibak zein diren ezagutarazi nahi dugu. Adibidez, Fiare banka etikoa banka tradizionalaren alternatiba da. Banketxe horrek zure dirua gizartearentzat eta ingurumenarentzat onuragarriak diren proiektuetan inbertituko dutela ziurtatzen dizu, ez dutela sekula armetan edo ingurumenari kalte egiten dioten enpresetan inbertituko. Pertsona erdigunean jarri nahi dugu eta dirua baliabide bat besterik ez dela erakutsi nahi dugu.

Fiare banka etikoa aipatu duzu. Nola kokatzen da banketxe tradizionalak hain indartsuak diren merkatuan?

Fiare errealitatea da dagoeneko. Bilbon sukurtsala du eta ekonomia sozialaren eta solidarioaren arloan negozioak, ideiak edota proiektuak finantzatzeko aukera ematen du. Pertsona fisikoek kreditu-txartelak edo zordunketa-txartelak ere izan

ditzakete. Dirua ateratzeko kutxazainik ez da, baina beste banketxe batzuekin egindako hitzarmenei esker, handik atera liteke eta nomina helbideratu daiteke. Banketxe handiekin lehiatzeko hainbat zailtasun ditu, baina banka etikoa erabiltzeko aukera erreala da.

Beldurra ere izan dezake jendeak. Pentsa dezakete euren dirua ez





dela seguru egongo.

Bai. Edo eskaintzen dituen zerbitzuen gaineko zalantza izan dezaketete. Ezezagutzak alternatiba serioa ez dela pentsatzera bultzatzen gaitzake, baina ohiko banketxeen modura funtzionatzen du.

Finantza etikoen alorrean banketxeei buruz hitz egiten ari gara, batez ere. Zer beste alor sartuko lirateke?

Inbertsioak ere egin litezke. Oikocredit erakundeak, adibidez, gizartea eta ingurumena kaltetzen ez dituzten egitasmoetan egiten dituzten inbertsioak garatze bidean dauden herrialdeetan. Inbertitutako dirua kafe kooperatiba bat aurrera ateratzeko izan liteke eta bertako langileek lan baldintza duinak izango dituztela ziurtatzen dute. Tokiko garapenerako proiektuak izaten dira.

Zergatik da garrantzitsua finantza etikoak bultzatzea?

Banketxe handiek posizio argiak dituzte, marketing ikaragarria dute eta pixka bat arakatu ezean merka-

tuko alternatiba bakarra direla dirudi. Hezkuntza formalean sartzen hasiak zirela ikusi genuen, euren buruaz hitz egiteko espazioa zutela, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta egiten duten lanen berri emateko aukera zabaltzen ari zitzaizela. Horregatik erabaki genuen Finantzaz haratago sarea sortzea, ekonomia soziala eta solidarioa kontsumo-eredu eta bizimodu gisa ezagutarazi beharra ikusi genuelako. Bide horretan hainbat material lantzen hasi ginen eta eskoletan esku hartzen hasi ginen.

Heziketa behar da, oraindik oso ezjakinak baikara arlo horretan.

Bai. Ikasleen profilararen arabera, gaira gerturatzeko modu bat edo beste erabiltzen dugu. Nerabeekin aritzen gara (DBHko 3. eta 4. mailatan eta Batxilergoan) eta gaia ezagutzen ez dutenean modu ludikoan aritzen gara: jolasak, rap saioak, escape room-ak... Gaia apur bat ezagutzen dutenen kasuan, hitzaldiak eskaintzen ditugu. Irakasleek gida modura erabil dezake-

ten unitate didaktikoa ere argitaratu dugu. Hezkuntza formalean esku hartzeaz gain, eskoletatik kanpo hitzaldiak eskaintzen ditugu eta zenbait jardunalditan edota forotan parte hartzen dugu.

Banketxe tradizional batetik banka etikorako jauzia egitean erabaki politiko sakona da, ezta?

Bai. Batzuetan ez dugu horretan pentsatzen, baina dirua noren eskutan uzten dugun erabaki politiko da. Ohiko banketxeek geure dirua etekin ekonomikoa ateratzeko erabiltzen dute eta finantza etikoek, aldiz, proiektu jakin batek gizartean edota ingurumenean duen eraginaren arabera neurtzen dute etekina. Balore batzuen arabera egiten dute lan eta pertsonak erdigunean jarriz. Banku etikoa, bidezko merkataritza, tokiko kontsumoa... Ekonomia soziala eta solidarioa zirkuitu baten modukoa da. Finantza etikoek guretzat balio handikoak diren proiektuak finantzatzen dituzte eta proiektu horiei esker banku etikoak lana du. Elkar eragiten dute denek.

GALDEIDAZU

NOLA EGIN IKASTETXEKO PROIEKTU DIGITALA?

Gaur egungo gizartearen erronka nagusiak teknologia digitalaren bustidura dute: denok bizi dugu digitalizazioak gure egunerokotasunean duen eragin izugarria harremanetan, lan munduan, aisialdian, ekonomian... eta hezkuntzan ere bai. Gailu digitalak gure ikasgeletan sartu dira eta sarritan entzun ohi da ikasleek tresna horiek helduek baino hobeto erabiltzen dituztela. Baina zer dago erabilera horren atzean? Digitalizazioa tresnen erabilera hutsera mu-



gatzen al da soilik? Hala haratago doa? Galdera horiei guztiei gizarte zein hezitzaile gisa erantzuteko garaia iritsi da, zalantzarik gabe. Hori dela eta, ikastetxeetan erronka digitalen aurrean proposamen zehatzak egiteko testigua hartzeko momentua da.

Azken urteetan, alfabetatze digitalak berebiziko garrantzia hartu du, digitalizazioa modu esanguratsuan, kritikoan eta kontzientean erabiltzeko beharra azpimarratuz. **Teknologia digitalak erabiltzeko**

EGOITZ DE LA IGLESIA, ANE ZUBIZARRETA eta AMAIA ARROYO SAGASTA
HUHEZIKo irakasleak eta KoLaborategiko ikerlariak



ezagutza izateaz gain, horien erabilerarekiko kritiko izateari eta kontzientzia beharrari egiten dio erreferentzia alfabetatze digitalak. Euskal testuinguruan, **hiritarren kompetentzia digitalaren erreferentziako marko europarra DigComp** da, arlo horretan hiritar batek izan behar dituen 21 kompetentziak zehazten dituena. Hezkuntzak (ikastetxeek eta irakasleek) kompetentzia horiek garatzeko ikaskuntza-testuinguruak eta -esperientziak eskaini behar ditu, ikasleek kompetentzia digitala garatu dezaten. Horretarako, irakasleen kompetentzia digitala ezinbestekoa da ikaskuntza-testuinguru horiek diseinatzeke, eskaintzeko, gidatzeke eta ebaluatzeke. Testuinguru horretan, irakasleen kompetentzia digitalaren erreferentziako marko –DigCompEdu– ezinbesteko erreferentzia da. Bertan, digitalizazioari lotuta irakasleak bere egunerokotasunean izan behar dituen 22 kompetentziak zehazten dira.

Dena den, ikasleen kompetentzia digitala sustatzeko, ez da nahikoa irakasleen kompetentzia digitalean arreta jartzea, ezinbestekoa baita ikastetxeek ere digitalizazioari begirako ikuspegia eta posizioa izatea. **2023-2024 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ikastetxe guztiei Ikastetxe-ko Proiektu Digitalaren txostena izateko eskaera egin die Eusko Jaurlaritzak.** Estatu mailan egin den eskaera izan da eta, beraz, ez da EAEn egindakoa soilik. Ikastetxe-ko Proiektu Digital hori irakas-kuntza- eta ikaskuntza-prozesuen bitarteko digitalen erabilera egokitu eta erraztuko duen tresna izango da; ikastetxe bakoitzak teknologia digitalen gainean bere ikuspegi pedagogikoa eraikitzeke aukera, alegia. Hortaz, Ikastetxe-ko Proiektu Digitalaren helburu nagusiak hiru dira: teknologia digitalaren erakunde mailako ikuspegia eraikitzea eta adostea, ikuspegi tekno-pedagogikoa hezkuntza proiektuan integratzea eta baliabide digitalen erabilera ikas-eta irakas-prozesuetan moldatzea eta erraztea.

Hori posible egiteko, Europako

hezkuntza erakunde digital kompetenteen markoa (**DigCompOrg**) izan da oinarria. Markoak, sei dimentsioei egiten die erreferentzia:

1. Lidergorako eta gobernantzarako jardunbideak.
2. Irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako jardunbideak.
3. Ebaluazio-jardunbideak.
4. Edukiak eta curriculumak.
5. Elkarlana eta networking-a.
6. Azpiegiturak.

Ikastetxe-ko Proiektu Digitala sortzen hasteko, dimentsio horiek kontuan hartuko dituen diagnostia egin behar da. Hori egiteko, SELFIE doako tresna jarri da eskuragarri ikastetxe guztientzat, markoak zehazten dituen sei dimentsio horien gainean ikastetxe bakoitzak bere erakunde teknologia digitalen erabilera nola egiten duen aztertzeke. Beste era batean esanda, SELFIE tresnak hezkuntza erakundeei teknologia digitalen integrazioaren ebaluazioa egiteko aukera eskaintzen du. Hori egiteko, ikasleen, irakasleen eta zuzendari-tzako kideen informazioa jasotzen da, ikastetxeen egoera ahalik eta ikuspegi anitzenetatik begiratzeke. Jasotako informazioarekin, **SELFIE tresnak txosten pertsonalizatua egin du, hezkuntza erakundeak teknologia digitalen erabileraren gainean dituen indarguneak eta hobekuntza ildoak** zehazteko informazioarekin. Horrela, ikastetxe-ko jasotako datuen gainean hausnartzeko aukera zabaltzen zaio, teknologia digitalen erabilera esanguratsuen gainean aurrerapausoak definitzeko.

Hezkuntza erakundeei teknologia digitalen erabilera nolakoa den aztertzeke SELFIE tresna eskainita ere, Ikastetxe-ko Proiektu Digitala osatzea erronka konplexua da: horrelako proiektu esanguratsua egiteak denbora eta teknologia digitalen erabilera ikuspegi tekno-pedagogikotik definitzeko ezagutza eskatzen ditu. Errealitate konplexu horretaz jakitun, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) KoLaborategitik bidalguntza pertsonalizatua eta erabilga-

Ikastetxe-ko Proiektu Digitalaren helburu nagusiak hiru dira: teknologia digitalaren erakunde mailako ikuspegia eraikitzea eta adostea, ikuspegi tekno-pedagogikoa hezkuntza proiektuan integratzea eta baliabide digitalen erabilera ikas-eta irakas-prozesuetan moldatzea eta erraztea.

rritasunera bideratua planteatzeko hautua egin genuen.

Bidelaguntza proposamen horren helburu nagusiak bi dira. Alde batetik, SELFIEaren bidez ikastetxeak jasotzen dituen **datuak ustiatze-ko laguntza eskaintzea**, bertako ekosistema digitala modu errealean neurtzeko eta hobetzeko baliabide eraginkorra izan dadin. Beste alde batetik, datu horien interpretazioarekin, ikastetxearen errealitatea definitzeko, ulertzeko eta hobetzeko **proposamen errealak eta egokiak egin laguntzea**. Modu horretan, ikastetxearentzat baliagarria, esanguratsua eta praktikoa den Proiektu Digitala zehaztea da helburu nagusia.

Erraza ez bada ere, hasiak gara lehenengo pausoak ematen. Arizmendi ikastolako Almen guneak eta HUHEZIKo KoLaborategiak elkarrekin egindako prozesua oso emankorra izan da. Alde batetik, ikastetxe-ko bere beharrei egokitu-tako bidalguntza eskaini zaiolako, Ikastetxe-ko Proiektu Digitala diseinatzeke hausnarketarako espazioak

Etorkizun hurbilean ikastetxe guztiek egin beharko duten prozesu honi egokitasuna eskaini behar diogula azpimarratuko genuke: ikuspegi tekno-pedagogikoan oinarritutako zentzua eta gogoeta, hain zuzen ere.

sortuz. Bestetik, HUHEZIrentzat oso baliagarria izan da esperientzia, ikastetxearekin bidelaguntza prozesua modu esanguratsuan balioes- teko eta hobetzeko aukera ematen duelako. Bidelaguntzaren prozesua lau fasetan banatu da. (*Irudia 1: bidelaguntza prozesuaren prozesua*).

Lehenengo fasean, helburua ikastetxearen informazioa jasotzea da, ikastetxea barnetik ezagutze- ko eta digitalizazioaren gaineko ikuspegia zein den identifikatzeko. Horretarako, lehenengo, zuzendaritza taldearekin biltzen gara eta ikastetxearen interesguneak jasotzen ditugu, SELFIE galdetegian beharrezkoak –eta posible– diren aldaketak egiteko helburuz. Era berean, irakasleekin digitalizazioaren gaineko sentsibilizazio prozesua jartzen dugu martxan. Horretarako, SELFIE galdetegiaren, digitalizazioaren gaineko markoaren, zein Ikastetxearen Proiektu Digitalaren inguruko oinarritzko azalpenak emateko saioa antolatzen dugu.

Ikastetxearen nondik norakoak ezagututa eta sentsibilizazio prozesua aktibatuta, bigarren fasean, SELFIE galdetegia betetzen da. Erantzuteko garaietan, gaian adituak diren bi pertsona presente egotea

interesgarria dela pentsatzen dugu, zalantzak argitzeko eta beharrez- koak diren azalpenak emateko. Izan ere, galdetegiak zenbait gai tekniko jorratzen ditu eta galderak ez dira beti argi ulertzen.

Hirugarren fasean, jasotako informazioaren gaineko analisia egiten dugu, hausnarketa prozesua irakasleei eta zuzendaritzako kideei zabalduz. Lehenengo, jasotako erantzunen analisia egiten da. Analisi horretan, indarguneak eta hobetzeko aukerak azaleratzeko aukera dago, aurrerago egin beharre- ko Proiektu Digitalaren lehenengo zirriborroa osatuz. Behin oinarritzko analisia eginda, zuzendaritza taldearekin bigarren saioa antolatzen dugu. Bertan, taldearen aurrei- kuspena jasotzeko lan dinamika planteatzen dugu, txostenari begira jarri eta ekarpenak egiten haste- ko. Galdetegiak jorratzen dituen esparruen gaineko autopertzeptzioa lantzea da helburua.

Hori eginda, prozesua amaitzeko, egindako analisitik ateratako helbu- ruak eta ekintzen definizioa egiten dugu, Ikastetxeko Proiektu Digita- laren txosten definitiboa diseinatzu. Horretarako, indarguneak eta ho- betzeko moduko alderdiak kontuan hartu eta Ikastetxearen Proiektu Digitala indartzeko proposamenak eta gomendio zehatzak ondorioz- taten dira, horiek ere txostenean txertatuz. Argazki propioa eta objektiboa jasotzeaz gain, beharrei erantzuteko ideia eta proposamen zehatzak jasotzen ditu.

Hala eta guztiz ere, **Ikastetxearen Proiektu Digitalaren txostenaren erredakzioa ez da prozesuaren amaiera**. Txostenean jasotakoa inplementatzeak zalantzak, kez- kak, ustekabeak eta erresistentziak ekar ditzake, eta ziurgabetasun

horri aurre egiteko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate- ko KoLaborategitik bidelaguntza eskaintzen dugu.

Prozesu guztia kontuan izanda, Arizmendin aurrera eramandako es- perientzia pilotua oso aberasgarria izan dela esan dezakegu: gure bide- laguntza prozesuaren zilegitasuna eta egokitasuna berretsi genituen, eta bidean emandako feedbackare- kin hobekuntzak egin genituen. Ba- tetik, bidelaguntza eskaini genuen hezkuntza komunitatearen ardura, zalantza, kezka zein indarguneak kontuan izanda. Bestetik, prozesua- ri zentzu praktikoa eta erreala eman genion, gogoeta praktikoa erdigu- nean jarrita.

Zalantzarik gabe, etorkizun hurbi- lean ikastetxe guztiek egin beharko duten prozesu horri egokitasuna eskaini behar diogula azpimarratu- ko genuke: ikuspegi **tekno-peda- gogikoan oinarritutako zentzua eta gogoeta**, hain zuzen ere. Nahiz eta Ikastetxeko Proiektu Digitala ikastetxe askok derrigortasune- tik ikusi, zentzua emango dioten espazioak ireki behar dira proze- suan, ikastetxearen errealitatearekin loturak eginez. Digitalizazioaren erabilera esanguratsua gaur egungo hezkuntzaren erronka nagusietako bat izanik, prozesu honen eraketak hausnarketa sakona eskatzen digu, bai unibertsitateoi –aditu gisa–, eta baita ikastetxeei ere –aritu gisa–. Elkarlanetik eta elkarlanean asko ikasi daitekeela ondorioztatu dugu prozesuan, ikastetxeen benetako beharretatik abiatuta bidelagun- tza ahalik eta esanguratsuen eta pertsonalizatuena eskainiz. Digita- lizazioa izango bada, pedagogikoa izango da, eta Ikastetxeko Proiektu Digitala hori lortzeko bidean aliatua izan daiteke.



Irudia 1: bidelaguntza prozesuaren prozesua.

ARGITALPENAK



OLENTZERO-ENBORRA

Jon Etxebarria *Txontxe* - Malen Amenabar

ELKAR

Amaiur galdezka joan zitzaion amonari: “Zer gertatzen zaio eguzkiari?”. Eta amonak erantzun: “Eguzki amandrea zahartzen hasia da”. Basora abiatu zen orduan erantzun bila, Mariaren lurraldera, akerra eta sugea bidelagun. Haien jarraibideei esker jakin zuten Amaiurrek zer egin eguzkia suspertzeko.



HARTZ ARREA, PIRINIOETAKO HARTZA

Régine Elozegi Blanc - Iker Üthürralt

IKAS

Hartzaren gaia alderdi anitzetatik landu dute liburuxka honetan: zientzien, historiaren eta geografaren alorretatik. Era berean, hartzak euskal kulturako pertsonaia adierazgarri gisa duen garrantzia azpimarratu dute. Dokumentu-albuma da liburua eta 6 urtetik gorako haurrei zuzendu diete.



ESKOLA PUBLIKO BERRIA EUSKAL HERRIAN. BEHARREZKO EZTABAIDA

Fito Rodriguez / Josu Txapartegi

DELTA

Bi kezka daude liburuaren oinarrian: ikastolei “pribatu” izaera emateko batzuk egiten ari diren ahalegina, batetik, eta dauzkagun hiru edo lau sareen artean bizi dugun ez-ikusia edo ezin-ikusia, bestetik. Liburuaren 2. edizioa da hau eta kapitulu batzuk gehitu dizkiote egileek.



ZUHAITZEN BALIOA

Susana Dominguez - Daniel Rodriguez

SAURE

Zuhaitzak dira planetako bizidunik zaharrenak eta handienak. Izaki konplexuak dira, elkar komunikatzen dira eta biziraupen estrategia harrigarriak dituzte. Bizitzeko eta osasuntsu egoteko behar ditugu. Ekosisteman duten ezinbesteko funtzioa baloratzen ikasi behar dugu.



AHIZPARI GUTUNA

Elena Olave - Irrimarra

PAMIELA

Mari Paz Jimenezen artelanak oinarri hartuta, artistaren lana ezagutaraztea da liburuaren helburua, modu eder eta poetikoan. Jimenezen sormen prozesuaren hausnarketetan murgiltzeko aukera izango dugu ahizpari idazten dion fikziozko gutunaren bidez.



MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE, BAINA EZ DA

Amagoia Mujika Telleria

BIZIPOZA

Bizipoza osatzen duten elkar-teentzat lurra ez da beti samurra, haientzako sarea gaixotasunek edota beharrek urratuta dagoelako. Garbi dute beren hurrek ez dutela etengabe lurrera begira joan behar. Lasai begiratu behar dutela aurrera edo gora.

PROPOSAMENA

Hezkuntzaren Museoa

Euskal hezkuntzaren historian barna

Nondik gatozen jakitea garrantzitsua da nora goazen jakiteko. Eta nondik gatozen jakiteko, leku paregabea da EHUren Ibaetako campusean kokatua dagoen Hezkuntzaren Museoa. 2014. urtean zabaldu zituen ateak, eta Euskal Herriko hezkuntzaren historian barrena ibilbide bat egiteko parada ematen du.

Euskal Herriko Unibertsitateko Garaian ikerketa taldearen ekimenez sortu zen Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzaren Museoa, eta Euskal Herriko hezkuntzaren memoria historikoa berreskuratzea, zaintzea eta ezagutaraztea ditu helburu nagusi. Pauli Davila da taldeburua eta museoko zuzendaria, baina Joxe Garmendia irakaslea eta museoko Koordinazio Batzordeko kideak zabaldu dizkigu ateak. Museora sartzeko gure historia hurbilera bidaia egitea da, bi mende inguruko bidaia egitea. Azaleko begirada eskainita, agerian geratzen da euskal hezkuntzaren kontrola frantziar eta espainiar estatuek izan dutela beti eta, biek ala biek, eskola asimilaziorako tresna gisa erabili dutela.

Hiru zatitan antolatzen da museoa: *Euskararen mundua eta hezkuntza*, *Eskolaren gunea* eta *Irakaskuntza-aren eta ikaskuntzaren gunea*.



Museoan ikusgai diren paneletako bat.

Euskara eta euskal hezkuntza

Euskara nondik datorren eta zer ibilbide egin duen azaltzen da atal honetan. Bisitariak museoaren irakurketa hizkuntzaren oinarritik egin dezan lortu nahi dute, eta XIX. mende hasieratik hezkuntza

formalak Hego Euskal Herrian izan dituen mugari nagusietara bitarteko ibilbidea egin daiteke: Moyano Legearen efektuak, karlistaldiak, Seiurteko Iraultzailea, Primo de Riveraren diktadura... II. Errepublikaren garaian, Eusko Jaurlaritzak



Frankismo garaiko ikasgela baten ereduak dute ikusgai museoan.

Euskal Unibertsitatea jarri zuen abian. Euskal Unibertsitatearen sorrerako historia azaltzeko, hainbat horma irudi eta panel daude. Gela horretan dituzte, baita ere, Bizkai-ko eta Gipuzkoako landa eskolen argazki bildumak; eskola horiek hemengo erakundeek landagunee-
tarako sortutako eskolak izan ziren, eta arrakasta handia izan zuten. Espazio hori osatzeko, Errepublika garaiko material ugari dago, ikasle-
leen eskola koadernoak bilduma garrantzitsu bat horien artean. Donostiako hainbat eskolatako koadernoak dira, II. Errepublika garaikoak eta gerra garaikoak.

Frankismo garaian, legez kanpo funtzionatzen zuten eskolak sortu ziren han-hemenka hainbat herritan, eta euskara irakasten zuten, debekatua egon arren. Eskola horietan erabili ziren koadernoak ere ikus daitezke, eta baita argazkiak eta ikasle izan zirenen lekukotasunak ere. Gune horretan bildu dituzte berrikuntza pedagogikoko mugimenduak, euskal curriculumak ezartzeko urratsak, euskalduntzea eta alfabetatzea...

XIX. mendean, asimilazio prozesu handia gertatu zen Euskal Herrian. Kanpoko irakasle asko sartu zituzten ikasgeletan, argi diote datuek:

atzerriko irakasleak % 61 ziren Euskal Herrian; % 18 Galizian, eta % 19 Katalunian. Inspektoreek erlan handia egin zuten asimilazio lan horretan, besteak beste, zer ikasi behar zen zehazten baitzuten.

Eskolaren gunea

Frankismo garaiko zortzi idazmahai bikoitz, irakaslearen mahaia, arbela eta ikasgelako beste hainbat elementu berreskuratu dituzte. 50eko eta 60ko hamarkadetako ikasgelak nolakoak ziren ikus daitezke, eta bisitariak garai hartako hezkuntza nolakoa zen senti dezakete. Gela horretatik, modernoagoa den beste batera pasatuko da bisitaria: 70eko hamarkadako hezkuntza erreformari dagokio. Nabarmena da bataren eta bestearen arteko aldea.

Irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren gunea

Hainbat irakasgairen irakaskuntzan erabili diren materialak kokatu dituzte: Fisikakoak, Kimikakoak, Geografiakoak, Natur Zientziakoak... Eskola curriculumak eratzten duten irakasgaietako irakaskuntza eta ikaskuntza nolakoak izan diren jakin daitezke, material eta tresna horien bidez.

Hiru gune horiez gain, museoak



Hezkuntzaren museoa

Pabiloia, Manuel Lardizabal, 2
Gipuzkoako Campusa - EHU
943017389 – 943 018949
www.ehu.eus/museoeducacion
hezkuntzarenmuseoa@ehu.eus

Bisitak: hitzordua aldeaz aurretik eskatu behar da.

Iraupena: 90 minutu.

Dokumentazio Zentroa du. Zentro horretan, XX. mendean erabilitako testuliburuak, eskola koadernoak, memoriak... gorde dituzte. Gainera, hezkuntza gaiei buruzko liburutegi bat ere bada, hezkuntzaren historiari buruz XVIII., XIX. eta XX. mendeetan argitaratutako liburuekin.

Gune guztiak osatzen ari dira etengabe, museoaren ikuspegi didaktikori eta dinamikoari utsiz, betiere. Geure hezkuntzaren historia ezagutzeko, etorkizuna idazteko tresnak izan ditzagun.

ATZEKO ATETIK



ZUZENDARI IZANGO BANINTZ

ASIER ETXEBERRIA ETXEBERRIA

ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLAKO OINARRIZKO
MAILAKO ELEMENTU METALIKOEN FABRIKAZIOKO
1. MAILAKO IKASLEA

Atzo gauean, ohatzean nengoela, ikastetxeko zuzendari nintzela amestu nuen. Gaur egun, Elizondo Lanbide Eskolako ikaslea naiz eta eskola honetarako aldaketa batzuk bururatu zitzaizkidan.

Lehenik eta behin, ordutegia aldatuko nuke, 8:30ean sartu beharrean 9:00etan sartu beharko ginatke ikasle batzuk urrutitik etortzen garelako eta hagitz goiz ernatu behar garelako eskolara etortzeko. Gainera, bidean autobusak geldialdi aunitz egiten ditu; horren ondorioz, jendea goiz ernatu behar da. Ni, adibidez, goizeko 6:30ean ernatzen naiz, bidean sei geldialdi egiten ditugu eta 8:20an iristen naiz eskolara. Hagitz justu ibiltzen gara batzuetan, eta, horregatik, ordutegia aldatuko nuke.

Bigarrenik, atsedenaldiari buruz solas egin behar dut. Bi atsedenaldi izaten ditugu, bakoitza 20 minutukoa. Ordu erdira luzatuko nituzke, kasik ez baitugu denborarik izaten gosaltzeko ere. Gainera, klasera berandu sartzen bagara irakasleek

atzerapena jartzen digute eta hiru atzerapen pilatuz gero, falta bihurtzen dira.

Hirugarrenik, irakasleei buruz solas egin behar dut. Irakasle gehienek ez dute gudan, ikasleengan, pentsatzen. Guk arratsaldeetan deskantsatu egin nahi dugu, baina irakasleek etxerako lan aunitz bidaltzen dizkigute eta guk ez dugu denborarik izaten lagunekin gelditzeko eta ezta deskantsatzeko ere. Etxerako lan asko bidaltzen dizkigutenez, ez dugu astirik izaten gustuko ditugun gauzak egiteko. Gainera, ez baditugu etxerako lanak egiten, negatiboa jartzen digute. Guk denbora libreza izan nahi dugu lagunekin egoteko, etxean lasai egoteko, deskantsatzeko eta gustuko ditugun gauzak egiteko. Lanak egiteko egoten gara ikastetxean goiz osoa. Honekin akitu baino lehen, aipatu nahi dut irakasleek azterketen luzera eta zailtasun maila ere kontuan izan behar dituztela.

Laugarrenik, ikasteko metodologia aldatuko nuke. Nire lehengo

eskolan gehiena teoria izaten zen eta ez nuen ikasgairik gaintitzen; orain, lanbide eskolan, teoria gutxiago izaten dut eta gehiena praktikoa izaten da. Horregatik aldatu nintzen eskola honetara eta hagitz ere errazagoa da ikasgaiak gaintzea, nahikoa baita klasean egiten duzun lanarekin eta klasean egiten duzuna etxean erreparatzearekin. Hori eginez gero, hiru ebaluazioak aise gaindi daitezke.

Bukatu baino lehen, instalazioei buruz zerbait erran nahiko nuke. Gure ikastetxeak frontoia dauka eta hori primeran dago jolasgaraietan pilotan aritu ahal garelako, gustuko dudana zaletasun bat. Baina gure frontoiak zenbait hobekuntza behar ditu. Horietako aldaketa bat goiko bigak kentzea da, pilotan aritzen garenean asko molestatzen digutelako, frontoiak baxuagoa dirudi eta pilotek hor jotzen dute.

Azkenik, eta hau pertsona guzientako aldaketarik onena izanen litzateke: ez al lirateke hobeak izanen lau eguneko asteak? Zer iruditzen zaizue?

hik hasi
LIBURUAK

LIBURU
BERRIA



Biografia bat baino gehiago

Hezkuntzari, herrigintzari eta euskalgintzari eskainitako bizitza, guztiontzat eredu.



EUSKAL PEDAGOGOIA LOKATZETAN

Joxe Mari Auzmendi, Hik Hasiren arima, A-tik Z-ra

www.hikhasi.eus

ikerbasque

Basque Foundation for Science

**15 urtez
Euskadira talentu
zientifikoa
erakartzen**

DEUNG JANG, Hego Korea

Fisikan doktorea, Strasbourgeko Unibertsitatea, Frantzia

Deung-ek Frantzian eta Ingalaterran garatu du ibilbide zientifikoa.

Azken 7 urte hauetan, hemen bizi da eta bertan ikertzen du.

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO